



On Joxemieli lora eskaintza

Kirola eta Osasuna Urte Berriarekin
ANTZIZAR KIROLDEGLAN

Zerbitzu
BERRIAK



BEASAINGO UDALA
Gazteria eta Kirolak

I.M.D.
K.U.E.
BEASAIN

Ordutegia
7:00-22:00

Goierrin, Kutxako zuzendari lane-tan dabilen emakumezko bakarra da Maite Auzmendi idiazabalarra. Goierriz gain ere, gutxi dira goi kargu horretan aritzen diren emakumezkoak. “Bankuko zuzendaria gizonezkoa ikusi izan da beti, baina ez dauka zertan horrela izan beharrik. Orain sartzen den jende berria, nik uste gehiengo emakumezkoa dela. Baina normalean leihatilan egoten dira, ez zuzendaritzan”, azpimarratu digu Maitek. Etxeko diru kontuak “*nik uste gehienetan emakumeak eramaten dituela oraindik ere. Bulegora normalean emakumezkoa etortzen da gizonezkoa baino gehiago, baina hori ordutegiarengatik dela pentsatzen dut*”, gaineratu du.

18 urtez geroztik dabil Maite Auzmendi Kutxan. “*Beti herrian bertan*”. Batxilerra, Kontabilitatea eta bulego barruan egiten diren ikasketak ditu 43 urteko idiazabaldar honek.

Garai txarrenak pasatu dira Maiteren ustez. Ampo eta eta Jaso oso ondo dabilta. “*Langabezia handirik ez dago. Ampon jende*

gaztea hartzen dira, batez ere bertako bazkideen sendikoak, baina lanpostu berriak sortzen ari dira. Hori bai, lehen Patricio Etxeberria zena, orain Bellota Herramientas, gutxira joan da. Badirudi denbora gutxi barru itxi egingo dutela. Batzuk aurrejubilatu egingo dira eta besteak Legazpira joango dira. Baina kezka hor dago. Betidanik izan da herrikoa, lehen herrian ez zen besterik. Ampo eta Jaso geroagokoak dira. Askok herritik kanpora egin du lan, Indar, CAF, eta batez ere Aristrainen”, zehaztu du.

Etxebizitzak

Duela 9 bat urte egindako saihezbide edo bariantarekin herriak asko irabazi omen du. “*Lasaita-suna handia da. Negu aldean istripuren bat edo izaten denean, trafikoa berriz ere herritik bidaltzen dute eta izugarria izan da. Komertzioak piska bat nabaritu du, baina herria batuagoa dago, beste patxada bat*”. Etxebizitza ugari egin dira herrian eta Udala bitarteko dela zenbait apartamentu eta etxebizitza bifamiliar egiteko asmoa dago. “*Udalak espekulaziorik gabe kostu prezioan jartzen ditu etxe hauek. Baina Udalaren helburua, lur-sail horren ondoan*



*zegoen jauregia bereganatzea zen. Udala etxe horrekin gelditzeko modu bakarra zen bere inguruko lur-sailak era honetara berbalorizatzea”, azpimarratu du. Goierritik jende asko ari da Idiazabalen etxebizitza erosten. “*Herri oso polita da. Lehen joera gehiago zegoen lantokiaren ondoan edo ikasketak egiteko erosoago zegoen lekuetan bizitzea. Baina nik uste gaur egun joera handiagoa daukagula herri txikietara lasai bizitzera etortzea. Gazteek etxe premia dute baina lantoki finko bat ez duten bitartean ez dira etxebizitza erostera ausartzen*”.*

Kutxak ez ditu behar adina kontuan hartu gazteak Maiteren ustez. “*Behar bada izan ditugu hutsuneak, zenbait segmenturentzat produktu eskasia izan du Kutxak. Momentu honetan, badi-*

tugu produktu eskaintza gehiago. Gazteetara jo dugu bolada honetan, baztertuta edo ahaztuta eduki ditugu orain arte. Harrera ona izan du Kontu-Gaztek, diferentzia haundia da eta. Kontu-Gaztea promozioan oparitu genuen txokolatearekin identifikatzen da”.

Inbertsioen urtea

Balantzeetarako garaia da. “*Igo egin da, baina nik ez dut uste hainbeste nabaritzen denik ekonomia-
ren igoera hori. Momentu honetan herri honetan inbertsio asko dago eta igoera alde horretatik nabaritzen da batez ere. Hemen auzo batzuetan gasa sartu dute, eta sukaldeak eta bainugelak aldatzeko aprobetxatu du zenbaitek. Askok inbertitu den urtea izan da”, zehaztu digu idiazabaldarrak.*



kutxa fundazioa
fundación kutxa

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Postetxe-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:
Loinaz Agirre.
Maketazioa:
Mikel Albisu.
Publizitatea:
Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Joseba Te-
lleria, Ane Martin, Loinaz Agi-
rre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Aitziber Murua,
Eduarne Albizu, Iñaki Murua,
Alaitz Sarasola, Iraida Martin,
Josune Amondarain, Joseba Mi-
kel Leunda eta Nagore Goiburu.
Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 5.500 ale. 5.400 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼

Xanti Iruretagoiena Aterpeko irabazle



Joan zen udan Ataunera bi-
zitzera etorri zen Xanti
Iruretagoiena zarauztarrak
irabazi du IV. Aterpe Pin-
tura lehiaketa. 47 urte ditu
eta Bartzelonan ikasi zuen
Arkitektura. UZEIn ari da
lanean, euskara, eta arte eta
arkitektura munduak elkar-
tuz.

Koadro akriliko bat aur-
keztu zuen lehiaketara.
"Txiki xamarra da, nik nor-
malean handiagoekin lan
egiten dut. Tono abstrak-
toan egindakoa da, baina ez
da erabat abstraktoa, moti-
boren bat badu, txalupa
batzuk. Oso transparentea
da, kapa kaparen gainean
eta transparentzi batzure-
kin", argitu du. Oraintsu ar-
te egur gainean, pastarekin

eta erliebe gehiagore-
kin lan egin izan du.

Xanti ez da pintura-
tik bizi. "Arratsaldeak
ditut libre eta orduan
aritzen naiz. Saldu izan
dut lanen bat, baina be-
ti lagunen artean, ez
komertzialki. Lehiake-
tetara ere, duela pare
bat urte hasi nintzen
aurkezten, nere lanak
besteek nola ikusten di-
tuzten jakin nahian edo.
'Nafarroako Jaialdiak'
lehiaketan aukeratu
egin zuten nere lan bat,
nahiz eta gero ez irabazi",
esan du Xantik. "Artistari
ondo etortzen zaizkio
lehiaketak. Beharrezkoak
dira, asko animatzen dute
pintorea eta nolabait kon-
paratzeko modu bat da.
Komeni da zure koadroa
beste batzuen aldamenean
ikustea. Bestela oso bakar-
ko lana da, eta ez dakizu
nola jarraitu, nola lan
egin", gaineratu du.

Erakusketa pertsonalik
ez du egin oraindik. "Ba-
karrik egiteak lan handia
eskatzen du, bloke bat,
osotasunean landu behar
da eta fruitu handirik ez du
ematen. Ezagutarazteko
ere ez du gehiegi balio".

Besteek esana

"Presoek politikoki pisu
handia dute, eta beharbada
ezker abertzaleko mili-
tante aktiboenak dira,
egunero daudelako bo-
rrokan sistemari aurre egi-
ten". (...) "Komunikabide
gehienak errepresioaren
estrategiaren zerbitzura
daude. Paper hori GAL
bera bezain mingarria da".

Juan Mari Olanok,
'Egunkaria', 96-I-2.

"Gabonetako afari be-
reziatara iristeko, aurretik
364 egun ditugu; 364 egun
normal samar jan eta dirua
aurrezteko. Gabonetan
aurrezteaz ahaztu egin
behar da, egun batzuz ba-
da ere, etxea ipurdiz gora
jarri".

Jose Juan Castilok,
'Irutxulo' 95-XII-22.

"Datorren urtean,
Munduko Eskalada Txa-
pelketan, finalerdietara
erregulariki pasatuz gero
kontentu nengo, horrek
munduko 10-15 onenen
arte nagoela adieraziko
luke eta".

Josune Bereziartuk,
'Egunkaria' 95-XII-15.

Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Goierriko EGI: nora goaz?

Zuen eskutitza "nora goaz" hitzekin hasi zenuten, eta galderari erantzun ez zeniotenez, neronek erantzungo dut. Baina, aurretik, esan nahi dizuet benetan hausnartzeko ahalmen urria duzuela. Mikel "Ganbaras"en baserriko zoritxarreko gertaerak "KASetik ENAMeko sektore deszerebratuenei zuzendutako estrategia paranoikoaren emaitza" direla esatea hausnarketa politikoa bada, edonorri parr eginarazteko modukoa da. Baina, gai hau askoz ere serioagoa da eta idatzi deskalifikatzaile motz eta funtsik gabeko bat baina gehiago merezi du, hori interesatzen ez bazaizue ere.

Gazte bat etengabe jarraitua denean; Beasaingo komisarian gau bat pasatu eta egurtua ateratzean; lan finkoa izan eta Euskal Autonomi Elkartetik kanpo lan egiteko uzten duenean, kalean ikusita-koan "putakumea" deitzen dien gorriko hoiek ez ikustearren; zurea bezala dau den beste autoei jartzen ez dien multak jartzen dizutenean, lanean ari zaren kaletik pasa eta beti despreziozko keinuak egiten dizkizutenean, hilabeteen 20 aldiz geratu eta zure autoa goitik behera miazten dizutenean, gupilak eta telefonoa pintxatzen dizkizutenean... Pertsona bati hau dena denbora luzez etengabe egiten badiote, gorrotoaren hazia ari dira ereiten eta hemen dago arazoaren sustraia. Beraien zelaian jokatu dutenean, zu (edozein gazte errebelde) ez zara ezer, zanpatua, egurtua eta umilatua izan zara, eta okerragoa dena: zigorgabe.

Momentu batean edalontziari gainezka eginarazten dion tanta erortzen da (igandean Ibarren eta ondoren Oteizabalen gertatzen dena). Errepresio fisiko eta psikikozko kontestu honen barruan kokatu behar dira azkenean denon zoritxarrerako bi ertzainen heriotzekin bukatu ziren gertaerak.

Honela, zuen "nora goaz?" galderak, kontestu honen barruan, erantzuna bi hitz hauetan du: gorrotoa eta alterazio psikikoa. Hitz deskalifikatzaileak soberan daude eta bada zezenari adarretatik heltzeko garaia, honek kostu politikoa badakar ere (botoak, paktuak), honelako gertaerarik gehiago izan ez dadin gure lur maitean.

Izurri (Ordizia)

Euskadi gizandiaren zain (hurbilketa kriminologiko bat)

Euskal Herrian bizi dugun "funtsezko ezadostasun bortitza"ri buruzko auziaren inguruan orain arte ikusi ditugun ekintzek zein gogoetek fokatze bera izan dute: ezadostasun funtsezkoari amaiera eman diezaiokeen giro soziala prestatzea.

Batetik zeinu guztietako politikariak daukagu: ahaleginen ahaleginez euren tarrak fikziozko errealitate batean murgil arazten dituzte (geure garaipena iristear dagoenez, ez etsi, ekin aurrera!) espazio soziala, kale-ekintza eta ikur ohararazle frankoren bitartez, bereganatu nahirik. Talde bakoitzak irudikatzen duen geroaldi dizdiratsua orainaldian hipostasiazteko limurpen ekintzak ("paroxismo"aren muturrera iritsi direlakoaren lekuko) espazio sozialeko tensioan isladatuko lirateke. Gertaera guzti hauen azpian etorkizunerako ereiten ari den "ideia kriminogeno" batek kezkatzen gaitu, hots, justizia egiteko eta zuzena okerretik bereizteko gaitasuna duen bakarrak garela pentsatzeak. Halaber, gizarteko eritzi desberdintasuna, besteak geu bezain arrazoitsuak ez direlako datorkigula pentsatzeak, alegia. Areago, bi ideia kriminogeno hauek "continuum" batetan daude hedatuta Euskal Herrian: *izangai* batzurengan eta *izanean* besteengan. Hori gutxi balitz, "indarrean legea" eta "legearen indarra" nahastu dituen Estatuak egoera larritu besterik ez du egin.

Bestetik, herriaren "intelligentzia" delako elitea osatzen dutenen gogoetek ere "funtsezko ezadostasun bortitza"ren amaiera ekar lezakeen giro soziala prestatzeari ekin diote: elkarriketa eta konsensua, topaketa eta negoziaketa, adostasunera garamatzan mahai gaineko zein azpiko jokuen beharra etab. "Intelligentzia"ren emariarekin hirugarren ideia kriminogeno bat gizentzen da. Izan ere, politikarien antzera, "funtsezko ezadostasun bortitza"ri amaiera eman diezaiokeena adostatzeko espazio hutsaren bila dihardute; non eta nola eraikiko "elkargunerako espazio huts" baten bila dabilta. Areago, "nondik hustuko norberarena, bestearenari bortizki lekua egiteko". Ideia edo jarrera honen kriminogenia begi bistakoa da, zeren, adostasuna sinatu bezain pronto berpiztuko bailitzateke uko egin denaren

erreibindikazioa eta bortizki barneratutakoaren errepresioa.

Gatazkaren une garrantzitsu batean gaude, espazio sozialean tentsioaren areagotzearekin batera, batzuei eta besteiei, gairi ezinezko ezintasunak begi bistan jartzen diren neurrian, *ahuldade mingarria* darie. "Egoera limite"an gaude: "pake erreibindikatzailea" eta justiziaren *egarria* tensio "maximun" eta "continuum" batean uztartzen diren neurrian, zirkunstantzia egokiak ematen dira "funtsezko ezadostasun bortitza"-rekin amaituko duen liderra ("Gizandia" Lizardik esango lukeen bezala) azal dadin. Aintzinako gertakizunek (*historia, magistra vitae*) nahiz azken urteotakoek garbi utzi digute figura honen beharra. Litekeena da estaliriko handitasun hori daramanak oraindik "kairos" a ez aurkitu ahal izatea, edota geure artean horrelako pertsonariarik ez egotea. Dena den, honako *kosmobisio* honetan oinarrituriko ekintzak bdieratuko beharko litzuzke:

1. Herritarrok hedatu dezakegun ideia kriminogenoaren antidotoa. Gizatasunaren ikuspegitik, "ideia bat bizitzaren helburutzat" hartzean, norberaren bizia ematea zilegi da; inola ere ez besterena arriskuan jartzea. Orduan bai mintza gintezkeela pakeaz, ze honen alderdi erreibindikatzailearen gainetik bere jatorrizkoa ezarriko bailuke: pakea, *eskaini* dezakegun zerbait bezala.

2. Politikarien ideia kriminogenoari aurre egiteko. *Edozein biktima biktimatzaile bihur* dezakeen zirkulu zoroa apurtu egin behar da. Hildo honetatik aberastu zuen Xalbadorrek bere gizatasuna, biktima izanik biktimatzaile ez izatea aukeratu zuelako: "... Txistuak jo dituzue baina/ maite zaituztet oraindik".

3. "Intelligentzia" bezala izendatu ditugun mugimendu sozialek bilakatu dezaketenean ideia kriminogenoen aurka egiteko. Norbera hustuz "elkargunerako espazio hutsa" eraikitzeari baino gehiago besteari norberaren baitan leku egiteari, gizatasuna garatzeari, aberasteari ekin behar zaio: auzia ez da "hura eta ni", "hura eta biok" baizik.

Ba al dago une honetan Euskal Herrian horrelako *gizandi* bat erdi dezakeen erakunde, talde edo alderdirik?

Luis M. Barandiaran
J.C. Larrañaga (Beasain)

Intereseko Telefonoak

Arama

Udaletxea:888953

Tf. publikoa:880739

Ataun

Anbulategia (S.M.): . 180025

Udaletxea:180011

Anbulategia (S.G.): ...180251

Ezkio-Itsaso

Udaletxea:721303

Tf. publikoa Ezk.:721303

Tf. publikoa Its.:880315

Gabiria

Udaletxea:880734

Tf. publikoa:881384

Gaintza

Udaletxea:889564

Tf. publikoa:880274

Legorreta

Udaletxea:806225

Eskolak:806014

Taxia:806170

Errezeta



**Juan Goiburuk
emana**

**Goiegi okindegia
Ordizia**

ERREGEETAKO OPILA

Osagaiak: kilo 1 irin, 20 gr. gatz, 150 gr. gurin, 250 gr. azukre, 4 arrautza, 30 gr. esne hauts, legamia, laranja eta limoi azal birrindua, kafe goilarakada bat azahar ur, laranja eta limoi azalak, eta gindak.

Irina, gatz, gurina, azukrea, arrautzak, esne hautsa eta legamia ontzi batean jarri eta ondo oratu ordu laurdunen batez. 2 minutu falta direnean, laranja eta limoi azal

birrindua eta azahar ura gehitu eta oreka egiten bukatu. Ordu erdiz utzi toki epel batean.

Bi zati egin eta 'errege ros-ko' forma eman. Laranja eta limoi azal eta gindekin apaindu opil bakoitza eta labean sartu 15 minutuz, 200-220° tan. Labetik atera eta azukrez hautsezatu. Hozten denean, krema edo esnegainarekin bete.

Bota bertsoa



Aitor Sarriegi
**Gaia: Eguberrien on-
doren erregimena?**
**Doinua: Sentimentua
sartu zitzaidan**

Zizka-mizkekin bukatzerako itsaski-zoparen usai.

Berdin txuleta berdina angulak ardoari trago noiznahi.

Postretarako hamasei turroi mazapan piskat ere bai.

Txanpai botila erdi husturik patxarana noiz heldu zaita markakoa ez baldin bada ez dut ezer probatu nahi.

Alferrik jaten aritzen dira hamaika kalamidade ni jatun txarra sortu nintzen ta ez nago beraien alde. Lehendik kilotan goitik garenak afarien zai bagaude lasai gaitezke urtarrilean azterketak hor baitaude eta kiloak joango dira regimen beharrik gabe.



*Artesania
Opariak*

K. Nagusia, 28
☎ 16 02 48
ORDIZIA

PEACE

zure bakero denda

MERKEALDIK

Kale nagusia, 42 ☎ 16 20 56
BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Lana

□25 urteko neska euskalduna prest dago etxeko lanak egin, haurrak zaindu edo antzeko lanetarako. Esperientziaduna. 889521 - 886789 (Elena).

□Tabernari edo zerbitzari bezala lan egingo nuke. 18 03 78. Izaskun (gauez).

Salerosketak

□286 ordenagailua salgai. Inprimagailua opari. 28.000 pezeta. Tfnoa: 43 00 87. Igor (gauez).

□36 zm.ko zabalera duten musika ekipoentzako altzaria salgai. Sony markakoa. 12.000 pezeta. Berria. Tfnoa: 43 00 87, Igor (gauez).

□Technics markako bi kaja akustiko (bafle) salgai. 100 W.-din bakoitzak. Salarako egokiak. Berriak bezala eta merke. Tfnoa: 43 00 87 (Igor, gauean).

□Jonh Smith txupa saltzen da. 88 22 78. Koldo.

□Goierri etxebizitza konpartitu batean gela bila

nabil. Idatz Beasaingo 50 posta kutxara.

Etxebizitzak

□Zaldibian etxe adosatu bat dago salgai. Hiru logela, egongela tximenetarekin, sukaldea, bi bainu, ganbara eta garajea ditu. Deitu gaueko 9etatik aurrera 16 11 61 telefonora.

□Beasainen pisua erosiko nuke. Gehienez 8.500.000 pezeta. 88 61 66 (M. Jesus)

□Legorretan pisua alokatzen da. Eguzkitsua eta pintatu berria. 80 60 38.

Agurrak

□Joxe Mari, hirukoan sartuko haiz laster. Formaltzeko garaia ere baduk. Urte Berri egunean Txindokira joatea ez duk nahikoa, urte osoan eutsi behar zaiok horri. Zorionak.

□Argider, Gerrikoko croissant eta koka-kolak alperrik galdu aurretik etorri hadi jatera.

ANTZERKIA**✓ Beasain:**

Urtarrilak 12, Ur antzerki taldeak Shakespearren 'Romeo eta Julieta' lana aurkeztuko du, Usurbe Antzokian, 22:15ean. Sarrera 600 pezeta.

✓ Lazkao:

Urtarrilak 19, Ttanttaka taldearen 'Umekeriak' lana, Aleria Antzokian, 22:15ean. Sarrera 600 pezeta.

ZINEA**✓ Beasain:**

Ostirala 5, 'Asesinos', 22:15.

Larunbata 6, 'Asesinos', 17:00 - 19:30 - 22:15.

Igandea 7, 'Carrington', 17:00 - 19:30 - 22:15.

Astelehena 8, 'Asesinos', 19:30 - 22:15.

✓ Ordizia:

Ostirala 5, 'Casper', 22:15.

Larunbata 6, 'Jade',

19:30 - 22:15.

Igandea 7, 'Casper' 16:45; 'Jade' 19:30 - 22:15.

Astelehena 8, 'Jade' 19:30.

ERAKUSKETAK**✓ Beasain**

Urtarrilaren 31ra bitartean, IV. Aterpe Taberna Pinturako lehiaketan aukuratutako lanen erakusketa, Aterpe Tabernan.

MENDI IRTEERAK**Beasaingo mendizaleak:**

Urtarrilak 7, Usurbera.

Urtarrilak 14, Ausa-Gaztelura (904 m.) mendi irteera.

GOARDIAKO BOTIKAK

Urtarrilak 6-7: Urbizu; *8*: Atorrasagasti; *9*: Azpilikueta; *10*: Azpilikueta; *11*: Larnaga; *12*: Cuesta; *13-14-15*: Arriola; *16*: Urbizu; *17*: Atorrasagasti; *18*: Azpilikueta; *19*: Jauregi.

VOLVO **TOYOTA****ŠKODA**

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

LOINATZ**Taberna
Jatetxea**Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

**OSASUN**BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA*Eska ezazu eguna eta ordua*

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

OSKARBI

OINETAKOAK

Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.**Kickers**

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

IKASTAROA

✓ Beasain:

Urtarrilaren 9an hasita, buruhandiak egiteko haurrentzako tailerraren hasiera 17:00etan, Ezkiaga Auzo Etxean. Beharrezkoa da izena ematea aldezturritik Ezkiaga Auzo Etxean.

Urtarrilaren 15ean, 'Erlaxaketa eta kontzentrazioa'ri buruzko ikastaroa Asmubek antolatuta. Klaseak astelehenetan 15:00etatik 17:00etara. Iraupena 3 hilabetekoa. Matrikula: 3.000 pezeta. Izenemateak, Asmuben.

Urtarrilaren 16an hasita, 'Gorputz eta aurpegi-ko masaiari buruzko ikastaroa, Asmubek antolatuta. Klaseak, asteartetan 15:00etatik 17:00etara. Iraupena 3 hilabetekoa. Matrikula: 3.000 pezeta. Izenemateak Asmuben.

Urtarrilaren 18an hasita, 'Emakumea eta estresa: zergatik eta eraginak' ikastaroaren hasiera, Asmubek antolatuta. Klaseak ostiraletan, 17:00etatik 19:00etara. Iraupena 3 hi-

labetekoa. Matrikula 3.000 pezeta. Izenemateak Asmuben.

✓ Segura:

Urtarrilaren 13an hasita, Baratze Pilotalekuan, 11:00etatik aurrera, 'Mutikoak' dantza ikastaroa, Iparraldeko 'Primadera' dantza taldeko partaideen eskutik.

DEIALDIAK

✓ Ormaiztegi:

Guraso Elkarteak antolatuta eta Ormaiztegiko Udalaren laguntzarekin, euskara ikastaroa antolatuta da. Urtarrilaren 9an hasiko da eta astearte, asteazken eta ostegunetan emango dira klaseak, 19:00etatik 20:30ra. Matrikula 3.000 pezeta ordaindu beharko da. Izenemateak liburutegian egin daitezke 17:00etatik 19:00etara, edo telefonoz, 16 00 74. Oinarritzko euskara erakutsiko da.



Denetik piska bat

Asteazkeneko azokan ez zen nobedade handiegirik izan Ordizia aldean. Arkumeari dagokionez, 151 buru saldu ziren, gehienak 400ean eta bakar batzuk 370ean. Bertako onddoren bat edo beste azaldu zen; kiloa 3.000 pezetan saldu zen. Nikaloak, 3 bat kilo, 1.000 pezetan. Garaia oraindik iritsi ez bada ere, gazta berria saltzen hasi denik ere bada. Kiloko 1.550 pezeta ordaindu zen.

Bertako barazkiei dago kienean, hona hemen prezio batzuk: kardoa 175-200 pezeta; brokolia 100-150; azak 75-100; baratxuri burua 25-50 pezeta; azalorak 150-200; lonbardar aza 75-100; letxuga 50-75; atxi-

koria 50-60; porruak 100-110; tipula 75-85; espinakak 40-60; azelgak 40-50 pezeta eta patata 40-50 pezetan kiloa.

Kanpoko produktuetan, Valentziako alkatxofak 150ean saldu ziren; piper berdea 300-400ean; tomatea 300-350ean; eta lekak 450-500ean. Azken hauek behera egin dute zertxobait.

Arrainetan, angulak behera egin du, 23.000 pezetaraino. Legatza 2.400ean; mihiaraina 1.870ean saldu zen; muxarra 1.300ean; itsas-oi-larra 1.270ean; kalamarrak 1.560ean; txitxarroa 1.150ean; izokina 1.350ean; sardina 680ean; eta zapoa 1.920ean.

IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



Senpere Merkatal Gunea

☎ - Faxe: 16 19 90 BEASAIN

Egur laminatuzko leihoak. •
P.V.C. • Aluminio • Poliuretano •
Ateak • Pertsianak • Gortinak •
Parket flotantea

Karlos I Etorbidea, 2 - behea

☎ 46 22 66 Faxe: 46 22 24 DONOSTIA



JOSUNE ESTETIKA ZENTRUA

- Perfumeak, kosmetika, estetika tratamenduak.
- Opariak.
- Makilari bereziak.

J M Barandiaran Pl., 3 ORDIZIA ☎ 88 28 88

PUB

ASTI

Zorionak eta urte berri on!

Zaldizurreta kalea ☎ 88 45 06
BEASAIN

Ordiziako bertso-eskola arnasestuka?

Goierritarrok, Ordiziako partean, badaukagu bat: 1982ko udazkenean jaio zen, Ordiziako bertsolari eskola, Argi Berri elkartearen babasean. Gerora, zenbait udalen laguntza izan eta izaten jarraitzen du (Ormaiztegi, Ataun, Beasain, Itsasondo, Idiazabal, Lazkao, Ordizia, Segura, Zaldibia eta Zearain). Dena den, Diputazioaren aldetik ez dago esku bat botatzeko gogo handirik, eta Joxe Mari Barandiaranek aditzera eman digunaren arabera, (Ordiziako bertso-eskolaren sustatzaile garrantzitsua berau) badaramatza bizpahiru urte xentimorik eman gabe.

Burututako lana

Bertso-eskolan hasten ziren ikasleak, piskanaka trebatuz joanik, udaberri aldera Eskolarteko Txapelketan parte hartzeko gai izaten ziren. Goierriko taldea geratu zen txapeldun 95eko txapelketan. Gaztetxo hauek badute, ordea, txapelketaren aurreko ilusiorik ere. Bertsotan egiten ikastea amesten dute, eta horretarako irakasle egokiak behar izaten dira. Oraintxuarte, Mikel Mendizabal eta Xanti Garmendia arduratzen ziren lan horretaz; bata bertsotan trebatzeaz, eta bestea doinu ezberdinak irakasteaz. Baina denbora falta dela eta, Mikel Mendizabalek hartu du lan guztia bere gain, nik, neuk, ahal dudanean laguntzen diodalarik.

Ikasle kopuruari dagokionez, badago zer kontatua; lehenengo ikasturte hartan, 82-83 ikastaroan, 30 ikasle hurbildu ziren Barrena Kultur Jauregiara, bertsotan zaletu, eta ahal izanez gero, bertsotan egitera. Handik aurrerako kopuruak hauek dira: 83-84 ikastaroan 24 ikasle; 84-85ean 35, 85-86an 50; 86-87an 72; 87-88an 50; 88-89an 41; 89-90ean 45; 90-91n 34; 91-92an 70; 92-93an 65; 93-94an 34; eta aurtengo 27. Joxe Mari Barandiaranek gogoratzen duenez, lehen ikastaro haietara Ataungo haur asko etortzen zen, eta autobus berezia prestatzen omen zen, Ataungo ume haiek eskolatik atera eta Ordiziaraino etorri ahal izateko.

8-GOIERRITARRA



Orain artean gaztetxoen bertso-eskolaz aritu bagara ere, behin bapatean moldatu eta bertso moduan urte batzuk pasa dituztenak, asteazkenetan biltzen gara. Irakasle ezberdinak eduki ditugu, esate baterako Nikolas Zeberio, Euxebio Igartzabal eta Joxe Ramon Elortza. Azkenaldian Joxe Munduatek hartu du bere gain lan hori, eta 18:00etatik 19:30era hamaika bertso entzun daiteke.

Beste bertso-eskolak beste eskolekiko topaketak hasi berriak dira. Hala, Argi Berri elkartearen ere, prestatu izan da hainbat bertso-afari. Harreman hauek ez dira nahi bezain estuak, eta organizazio aldetik aurrerapenak emango diren esperantzetan gaude.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar 1995eko otsailean Goierriko bertso-eskolaren onerako, Argi Berri elkarteak aurrera eraman zuen 'Elkarteak bertso-gintzan' ekimena. Goierriko beste elkarteekin harremanetan jarri ziren, eta bertso-afariak prestatu ahal izan genituen herri ezberdinetako elkarteetan. Modu honetara, nolabait, Goierriko bertsolari gazteak bultzatzen direlakoan gaude, eta berriz ere, ekintza bera errepikatzeko asmotan gaude, elkarteak gehituz, eurak onartuz gero, noski.

Arnasestuka?

Aurtengo udazkenean hasi zen ikastaro berrian 10 neska-mutiko bertsozale agertu ziren, gogotsu etorri ere. Aurreko ikasle kopuruei arreta ipiniz, ordea, garbi dago kopurua nabarmen jaitsi dela, eta hori dela eta, kezka handia sortu da Goierriko bertso-eskolaren etorkizunaz.

Zergatik kopuruaren murrizte nabarmen hau? Bada gaztetxoak astirik gabe bizi direla dioenik; dantza, solfeoa, korala... makina bat zeregin izaten omen dute eskola orduez gain. Beste norbaitek, berriz, komunikabideei botako dio errua; bertsolaritzaaren islada oso txikia dela, 'Hitzetik hortzera' bezalako programa interesgarria kentzea... Baina ongi pentsatzen jarritz gero, eskoletan zaletzen al dituzte umeak bertsoarako? Ez al dira oso urriak bertsolaritza trarteren bat eskaintzen dieten irakasleak? Jakina da, haurrek bertso-eskolara joateko erabakia har dezaten, nolabaiteko interesa sortu behar dela beraian. Dударik gabe, ez da hori gauza erraza izango, baina zergatik ez saiatu? Gaztetxoen Txapelketako bideoak, bertsolari ospetsuekin hitzaldiak, 'Bertsolari' aldizkaria, beharrezko materiala eskuratzeko moduan eduki dezatela behintzat, horixe izan bailiteke bertsolaritzaarenganako interesa sortzeko irtenbideetako bat. Gurasoek ere, paper garrantzitsua betetzen dute, eta komenigarria izango litzateke haurrak gai edo arlo horretan murgiltzea, bertso-saio, bertso-afari nahiz txapelketetara eramatea, bertso liburuak eskaintzea..., baina, noski, behartu gabe.

Izan ere, azken finean, ez al da bertsolaritza Euskal Herriko kulturaren aberastasunik handienetakoa? Gure arbasoek hainbat urtetan landu eta zaindu dutena, horrela galtzen utzi behar al dugu? Gure aurreko belaunaldiek, eta guk, geuk, ezagutu dugun bezalaxe, gure ondorengoek ere ez al dute ba, bertsolaria ezagutzeko eskubiderik? Iragana ederki loratu zuten Lazkao-Txiki eta gainerantzekoek, baina bertsolaritzaaren oraina eta etorkizuna guk, geuk, erabakiko dugu.

Ni, behintzat ez nago berau galtzen uzteko prest, eta zu ere, hala egongo ez zarelakoan gaude. Anima zaitez bada, eta ez hutsegin astelehenero 17:30tik 19:00etara Barrena Jauregian izaten dugun zitarra. Ongi-etorria izango zara!

 Alaitz Sarasola (bertsolari gaztea)

Txapelketetan ikasi beharrekoa

Emaitzak errelatibizatzen eta daukaten garrantzia besterik ez ematen ikasi behar da lehenik. Gehienetan gure haserre, guk pentsatzen dugun irabazlea edo bigarrena, hirugarrena... aukeratu ez dutelako izaten da. Askori entzuten zaio: "Oraintxe ez diat batere entenditzen".

Beno bada, hori dionak, aurrez egin du hankasartzea. Epaimahaia, 6 pertsonen osaturik badago, denek ez dute erabaki bera. Neurtzeko erizpidea eta arauak zehazturik, eztabaidaturik eta idatziz jakin arren, bakotzari emaitza desberdina ateratzen zaio askotan. Hankasartzeak egiten dituzte, kantatu bezala neurtu ere bapatean egiten delako eta bertsotan ari garenok bezala epaitu behar duenak ere, eskuak bete lan!

Beraz, irabazlea honako hau da: egun horretan, jarri den lan mota horrekin, izan duen aldartea kontutan izanik, epaile eta gai horiekin txapela jantzi duena. Zuzen edo beste batzuk epaile izan bazinate, beste emaitza oso desberdina izateko arrisku galanta. Eta horrelaxe behar du. Bakoi-tzak bere gustoa dituen eta kitto!

Historiara izen batzuk pasako dira, eta zergatik ez bertso batzuk? Zergatik dute izenak hainbeste garrantzi eta bertsoez ia inor ez da gogoratzen?

Orain, izenei ahalik eta etekin hobereena ateratzeko garaian gaude. Antolatzaileok, izan ausartak eta eman izen berriei lekua zuen karteletan, "zaharrokin" ahaztu gabe.

Liñaki Murua

Zinemara joateko ohiturarik ba al duzu?



Unai Agirre
22 urte, ikaslea
beasaindarra

Noizbehinka joaten naiz. Intrigazkoak, 'thriller'ak gustatzen zaizkit. 'Mad love' ikusi dut azkenekoa eta inori ez nioke gomendatuko. Azken aldian ikusi dudana onena 'Smoke' da.



Nerea Aramendi
24 urte, publizista
Beasaingo

Gutxi joaten naiz, orduetegiak nahiko txarrak baitira nerretzat. Eta orduetegi egokietan, jende asko egoten da. Ikusi dudana azken pelikula 'El silencio de los corderos' da.



Andoni Zubeldia
23 urte, kaldereroa
ordiziarra

Batzutan joaten naiz, batez ere jaietan, aurreko egunean parranda eginda gero. Normalean Tolosara joaten gara. Poli-ziakoak, akziozkoak gustatzen zaizkit gehien.



A ze flaxa!



"Goierrri" k ez duela esistitzen? Entelekia bat dela Goierrrialdea? Non eta Bizkain! "Goierrri" ren adierazpen esplizitoa, kale baten izena Barrikan dago, beasaindarra jaiotzez baina han bizi den Pello Sarriegik bidalitako argazkian ikus daitekeen. Kokagunea ez al digute aldatuko orain! Nora eta itsasora...?

LOPETEGI AUTO ESKOLA GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

Igartetxe, 2
Oria Kalea, 14

☎ 882174
☎ 651117

BEASAIN
TOLOSA

BAREA TABERNA

Urte berri on!

Zaldizurreta Kalea ☎ 16 19 51
BEASAIN



Gero jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralerara menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin. On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

Zure neurriko Jubilazio Asegurua

Arduratu egiten al zaitu jubilatzeak?

Baita gu ere!

Gizarte Segurantzaren azken estatistiken arabera, pentsionisten % 60ak hilean 60.000 pezeta baino gutxiago jasotzen du, % 17ak 60.000tik 100.000 pezetara, eta 100.000 pezeta baino gehiago % 16ak besterik ez du jasotzen.

Ba al dakizu jubilatutakoan zenbateko pentsioa jasoko duzun?

Arrisku handikoa da horri erantzutea. Pentsioak orain berritu behar dira, ezin da gerorako utzi, hurrengo hamarkadan populazioa gero eta zaharragoa izango baita, eta arazo demografikoak sortuko baitira.

Guk badaukagu zuk behar duzun irtenbidea!


Jubilatzeko garaia iritsitakoan zure eguneroko gauzak egiten jarraitu eta, gainera, hainbeste aldi amets egindako denbora libre, afizioa, familia eta beste gauza askoz disfrutatze adina diru beharko duzu.

Aurrezteak gustatuko litzaizuke baina, ez al dakizu nola?

Geroari begira, aurrezteak oinarritzak dira, eta zuk orain egin dezakezu. Guk daukagun Jubilazioko Plangintza Modulatuarekin zure beharren arabera diseina dezakezu jubilazioa, eta beti ere behar horietara moldatuta.

Aurrezteak ez da hain garestia!

Egunean 295 pezeta besterik ez:



Iñaki Arin Generali Aseguru Etxekoa.

40 urte badituzu jubilatutakoan 15.000.000 pta. (*) edukiko dituzu.

45 urte badituzu, jubilatutakoan 8.400.000 pta. (*) edukiko dituzu.

Nork bermatzen dizu errentagarritasun handiagoa?

GENERALIk aseguruaren indarraldian % 6ko korritu teknikoa ematen dizu, eta gehigarri gisa, korritu horri mota honetako aseguruaren finantza inbertsioen emaitzak gehitu egingo zaizkio urtero.

Zeintzuk dira honen abantail fiskalak?

Jubilazioko Plangintza Modulatuak abantail fiskal garrantzitsuak ditu. **Ez zaie atxikipenik egiten** zure etekinei, eta gainera, etekin horiek oso-osoan zure Plangintzan inbertituko ditugu. Hori gutxi balitz, planak 21 urte baino gehiago iraunez gero, **jubilatzean zure kapitala PFEZeko (IRPF) zergetatik salbuetsita egongo da.**

Kontratuak 21 urte baino gutxiago irauten badiu ez arduratu, zerga txiki garrantzitsua izango baituzu. Zure egoerari dagokion **Jubilazioko Plangintza Modulatuari** buruzko argibide gehiago nahi baduzu, jo ezazu zeure aseguru agente/artekariaren bulegora edo **GENERALI**ren sukurtsalera.

Zure esanetara gaude argibide gehiago emateko.

(*) Gizonezko batentzako datuak, hileroko ordainketan %5 gorapenarekin eta %9ko interesa aurrikusiz, 65 urterekin jubilatuko dela kontutan hartuta.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

Berrikuntza ugari Ordiziako azokan

Ordiziako azokari bultzada, indarra ematearren hainbat lan egiten ari dira Goimen, Udala, Goieki eta baserritarrek eurak. Gauzak honela, azokaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa egin eta Hector Abascal getxoraren logotipoa izango da aurrerantzean azoka identifikatuko duena.

Plazaren zutabea eta arkumea, gazta eta barazkiak biltzen ditu logotipoak. Horrekin batera, Ordiziako Azoka hitzak eta azoka sortu zen urtea, 1512, azaltzen dira. Txuriurdira da. Logotipo egileak aurkezpenean esan zuenez, denboraldiaren araberako produktuak jartzeko aukera dago. Lehiaketara 200 lan inguru aurkeztu ziren.

Gainontzean, Plaza Nagusiko postuetan ere izango da aurrerantzean nobedaderik. Mantela jarriko da mahaletan. Logotipoa daraman paperezko edo plastikozko poltsak emango zaizkie erosleei. Eta azkenik, saltzailea identifikatuko duen plaka (baserriaren argazki eta guzti) izango dute mahai gainean.

Hau guztiarekin batera, Ordiziako azoka Goierrikan kanpo ezagutzera emateko triptikoa ere kaleratu da. Batetik, azokaren nondik norakoak azalduz, eta bestetik, bertako barazkien uzta sasoiak zehazten dituen egutegia azalduz. Azken batean, asteazkenorako azoka bultzatzeko promozio bideak dira martxan jarri direnak.



Logotipo eta berrikuntzen aurkezpenean, Ordiziako Udaleko, Goimen, Goieki, Eusko Jaurlaritzaren eta Diputazioko ordezkariak izan ziren.

Aparteko Azoka

"Asteazkenorako azoka bultzatu behar da, ez aparteko azokak bakarrik", esan zuten logotipoaren eta material berriaren aurkezpenean egunean. Abenduaren 27an egin zen Eguberrietako Aparteko Azoka. Kapoi, indioilar eta antzarren erakusketa eta 'euskal artzain txakurra'ren erakusketa monografikoa, eta Errezil sagarraren, fruituen eta fruitu lehorren lehiaketak izan ziren egunean zehar. Guzti horrekin batera, noski, ohiko bertako kalitatezko produktu freskoak. Bertako kardoak izan zen gainera eguneko protagonista.

Dena den, Aparteko Azokari izena eman zioten lehiaketan irabazleak honakoak izan ziren:

* Euskal artzain txakur lehiaketara 14 txakur aurkeztu ziren. Bi sailetan banatu zen: *iletsua* eta *gorbeia*koa arrazak. *Iletsu* arrazan Kamilo Intxaustiren 'Oker' txakurra izan zen irabazle eta

*gorbeia*koa Koldo Albistegiren 'Whisky'.

* Fruituetan, Ramon Aseginolaza idiazabalarrak aurkeztu zuen loterik onena. Ondoren, Errezilgo Jose Irulegik eta Gabiriako Miren Agirrezabalek.

* Fruitu lehorretan, Errezilgo Jose Irulegik jaso zuen saria.

* Kapoi, indioilar eta antzar lehiaketan, Hondarribiako Rafael Amunarrizek eraman zuen 20.000 pezetako saria.

Antolatzaileek Estefania Albisuri merezimenduko saria ematea erabaki zuten,

Eguberrietako azokan izan duen partehartzearengatik. 25 aldiz izan da Estefania.

Giroa ona izan zen egunean zehar, eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere. Hotza lehendabizi eta euria ondoren. Denetarik ikusteko, probatzeko eta erosteko aukera izan zen. Arratsaldean lehiaketa izan zuten igerialariak ere bueltatxo bat emateko aukera aprobetxatu zuten.

Aurtengo urteko egutegia

Aurtengo urteko Eguberrietako azoka abenduaren 24an izango da. Iraileko azoka nagusia, berriz, irailaren 11n izango da; apirilaren 10ean Idiazabalgo gaztaren aurkezpenean egingo da; ekainean mugaz bestaldeko azoka; abuztuaren 7an udako azoka berezia; eta azaroaren 9 eta 10ean Errioxako ardoaren azoka egingo da.

Ander Mujika



The Clover School of Languages

Domingo Unanue plaza,5

Tf. (943) 16 20 16

ORDIZIA

Ikasle, guraso eta goierritar guztioi opa dizkizute:
URTE BERRI ON!

Ba al dakizu?



☐ JOXEMIEL BARANDIA-

RANEN inguruan ekitaldi ugari egin dira urtearen azken egun hauetan. Abenduaren 22an ipuinen sari banaketa izan zen. 3-4. mailakoetan Aiora Urdangarin izan zen irabazlea; 5-6. mailakoetan Iban Urdangarin; 7-8. enekoetan Intza Barandiaran; eta BBB eta UBikoetan, lehen saria hutsik geratu zen. Abenduaren 31n, Saratik hilobira joan, eta lore eskaintza egin zitzaion. Honela, amaitutzat eman zen Joxemielen inguruan Murkondo Elkar-teak antolatutako kultur ekintza saila.

Bestalde, On Joxemiel oroimenez, zenbait euskal artistak, liburu berezi bat kaleratu dute. Orriak kotoi papezkoak dira eta neurriak, metroa bider metro erdi luze zabalean. Azala lizar egurrezkoa da. Argitaratutako aleak guztira 50 dira eta ez da salgai jarriko. Pilar Barandiaran, Joxemiel zenaren ilobak jaso du ale berezi hau.

Era berean, Joxemiel Barandiaranek hasitako atlasen hirugarren liburua, euskal hileta erritoei buruzkoa, kalean da.

☐ JOXE MIEL

AZURMENDI beasaindarrak, abenduaren 15ean bete zituen 17 urte kartzelan. Momentu honetan Cordobako kartzelan dago eta legearen arabera, Joxe Mielek kalean egon behar luke.

☐ HONDAKIN

TOXIKOAK tratatzeko planta egitekoak dira Ormaiztegin, bertako HBek kaleratu duen 'Zuztarra' aldizkarian aditzera ematen denez. Batetik, lohi eta hondakin-urak, putzu beltzetako lohiak, hidrokarburoak (taladrinak), azido agortuak, zianuro eta kromo bainuak tratatuko lirateke bertan. Eta bestetik, transferentzi zentrua eta araztegia ere izango litzateke. Berri gehiago hurrengo alean.

☐ ITSASON-DOKO GERTAE-REN ONDORE-NAK.

Aurreko aleko informazioa, abenduaren 14an egitekotan ziren bi manifestazioen berri emanez bukatu genuen. Harrez gero, eman du zeresanik gai honek. Goierriko HBek deituriko manifestazioa, hasterako, apurtu egin zuen Ertzaintzak. Hori dela eta, igandean, abenduaren 17rako egin zuen 2. deialdia. Jende ugari hartu zuen parte, eta istilurik gabe bukatu zen.

Goierriko 14 udalek deituko manifestazioan parte hartu zen jende multzoari bestalde, eskerrak eman nahi izan zizkien alkateek.

Martuteneko kartzelan dago Mikel Otegi gaztea. Eta bera izango da ziu-rrenik, zinpeko edo juraduek epaituko duten lehen kasua.



☐ IDIAZABALGO IPARRALDEKO SARRERA

bukatu dute jada. N-1 errepidearen lotura hau, Etxegarateren bikoizketaren lehen fasea da. 12 hilabete behar izan ditu Murias enpresak lanak burutzeko. 500 milioi pezetako aurrekontua izan du.

☐ INGURUGIRO HEZIKETA PROGRAMA

informatikoa kaleratu du Sasieta Mankomunitateak. Ingurugiro heziketa programaren bidez ikasleek ingurugiroari zor dioten



MAIZPIDE
euskaltegia

☎ 88 92 31 / 32

LAZKAO

HITANO IKASTAROA (HIKA)

- 12 orduko ikastaroa.
- Urtarrilaren 23tik otsailaren 15era.
- Astearte eta ostegunetan, 18:30tik 20:00ak arte.
- Matrikula 2.500 pezeta.

DEITU ETA EMAN IZENA

begiruen eta ingurugiro hau hobetzeko duen erantzukizuna indartu nahi da. Bilketa bereiztua eta berziklaketa ditu aztergai nagusi. Sasieta osatzen duten 22 herrietako ikastetxeetan banatuko da. Euskara hutsezkoa da. Arlo ohonetan lehena izan da EAEn.

ALKARTASUNA

LIZEOKO ikasleek irabazi dute, zaborretik hartutako materialarekin egindako jostailuen Gipuzkoako lehiaketa. 'Zaldiko-maldiko' izena du jostailuak, eta umeek hain gogoko duten 'tiobibo' eta 'barraka' da.

GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKE-

TAko finalean 3 goierritar aritu ziren lehian: Mikel Mendizabal (4. egin zuen), Iñaki Murua (5.) eta Joxe Ramon Elortza (8.). Saio polita egin zuten. Mikel Mendizabalen kartzelako 3 bertsoak puntuatuenak izan ziren; Iñaki Muruak poto egin ote zuen esan zuen epaimahaiak, ondorengo egunetan epaimahaiak kaleratu zuen komunikatuak hori ukatu eta barkazioa eskatu bazuen ere; eta Joxe Ramon Elortzari, berak botatako bertsoan esan zuenari jarraituz, bere arma onenak, ahotsak, huts egin zion finalean. Zorionak hiruroi!

EKAITZ GOIKOETXEA bertsolari gazteak Altsasuko Kimu Elkartek antolatutako I. Bertso-paper lehiaketa irabazi du. Beasaindarrak, 18 urte bitartekoen mailako lehen bi sariak eskuratu ditu.

ZERAINGO JAIOTZA

LEHIAKETA Ara 21 lan aurkeztu dira, Zerain, Segura, Gabiria, Ordizia, Beasain, Lazkao eta Ataundik. Irabazleak hauek dira: 6-10 urte bitartekoetan, Igo saria Zeraingo Aiora eta Ainarak lortu dute; 11-14 urte artekoetan, Segurako Itsas-Izarrekoek irabazi dute; 15-18 urte bitartekoetan, Igo saria



Ordiziako Otegi jantxidendak eta Beasaingo Mujika Dekorazioak saribana eskuratu dute Gipuzkoako erakusleiko edo eskaparat lehiaketan. Merkatarik Ganbarak antolatutako lehiaketa honetan 130 dendek hartu dute parte. Otegi lehenengo saria eman dio Merkatarik Ganbarak. Mujika Dekorazioak, berriz, herriarren saria jaso du.

hutsik gelditu da; 2.a Zeraingo Iban Garziarentzat izan da.

E GUBERRIKO POSTAL

ETA IDAZLAN lehiaketako sariak banatu ditu AEK-k. Ordiziari dago-kionez, postal lehiaketan hauek dira emaitzak: Urdaneta Herri Ikastetxean Ruth Teijeira eta Jessica Toral izan dira irabazle; Jakintza Ikastolan Nagore Pecharroman eta Asier Muñagorri; eta Milagrosa Ikastetxean Jurdan Martin eta izaskun Sarasola. Idazlan lehiaketan 1go saria Jakintza Ikastolako Leire Rodriguezek lortu du; 2.a Milagrosa Ikastetxeko Natale Basartek; eta 3.a Urdanetako Nerea Eskoriazak.

Beasainen, berriz, idazlan lehiaketa egin beharrean, Olentzero lehiaketa egiten dute. Bi sariak Alkartasuna Lizeo aldera joan dira. Sarituak: Enara Zamorano eta Estitxu Matias, eta Kol-do Agirre eta Asier Martin. Postaletan,

azkenik, Alkartasuna Lizeoko Naiara Iraolak eta Loinazpeko Naiara Jordak irabazi dute saria.

O FIZIO-ZAHA-

RREI buruzko lantxo batzuk argitaratzen hasi dira Gipuzkoako Udal-Euskaltegiak, Diario Vascon, ostegunero, urtarri-laren 4tik aurrera. Lantxo hauek Gipuzkoako industri-kulturaren adierazgarri dira eta kolekzionatzeko modukoak izango dira.



NATIONAL GEO-

GRAPHIC, Estatu Batuar aldizkariak, (azaroko alean, 188.

zenbakia) 24 orrialdeko erreportai zabala eskaini zuen euskal kultura, ohitura eta bizimoduari buruz. Aipamen berezia merezi du Ixidro Legorburu idiazabaldar artzaina eta bere seme Gorkari eskainitako atalak. Bertan uda partean artzain hauek Urbiako beraien txabolan daramaten bizimodua deskribatzen da, gazta nola egiten duten, udazkena iristean beheko haranetara nola jaitsi behar izaten duten, etab. Azken urteotan artzantzak jasandako beherakada ere aipatzen da. Orain 25 urte 52 artzain omen zeuden Urbian, eta gaur egun 10 bakarrik.

LEIRE GOIBURU

idiazabaldarra da 1995eko Gipuzkoako Ohorezko Dama. Miss Gipuzkoa lehiaketan 3. postua lortu zuen idiazabaldarra, 15 lehiakideren artean.

Eztabaida mahai gainean

Gipuzkoako Bertso Txapelketari buruzko mahaingurua izan zen abenduaren 22an Ordizian, Goierritarrak Kultur Elkartek, Gipuzkoako Bertsolari Elkartek eta Argi Berri Elkartek antolatuta. Hizlariak Mikel Mendizabal, Joxe Munduate, Rufino Iraola, Nikolas Zeberio eta bertaratu ziren entzuleak. Guztiak moderatzen, Joxepa Madariaga. Txapelketaren balorazio, kritika eta proposamenak, dene-tik hitz egin zuten partehartzaileek.

MENDIZABAL.- Txapelketaren helburua zen batez ere, probintziako txapelketa izatea. Orain arte, Gipuzkoako Txapelketak Euskal Herriko Txapelketaren kutsua izan du. Bereizketa egin beharra zegoela garbi zegoen. Probintziako txapelketa izateak, noski, bera-ekin ekarriko zuen, gazteen promozioa, gutxi ibiltzen direnei aukera ematea. Helburua bete da. Jendeak ikusi du txapelketa egiteko ez dagoela elite osoaren beharrik.

Txapelketaren alde onak: Bertso-eskolen inguruan egon den mugimendua. Bertsolari gazteen plazaratzea, batzuek berriak (Bixente Gorostidi esaterako, duela 2 urte hasi zen bertsotan) eta besteak ez hain berriak. Gai-jartzaile alde-tik benetan lan serio eta landua egin da, oreka eta inpartzialtasuna ondo mantendu da. Antolatzaileek lan ona egin dute, lekuekin asmatu egin da, prebisio ona egin zen finalean. Epaimahaiari buruz, alderdi onak aipatzekotan, epaimahaiko bateratua ikusi da.

Alde txarrak: beti gertatzen dena, aurrera joatea merezi zutenak, merituak egin zituztenak atzean gelditzea. Epaimahaiaren alde txarra, margen txiki xamarrarekin jokatu dutela, bai bertsoa ona denean, bai bertsoa txarra denean. Komunikabideek eman duten tratamendua, batzuen pobrea iruditu zait. Egin-ena nahiko pobrea, eta Egunka-



Joxepa Madariaga moderatzailea, Rufino Iraola epaimahaikidea eta Mikel Mendizabal bertsolaria.

ria-rena nahiko juxtua, DVrena bueno. DVn Rufino Iraolak egin du eta ez zait iruditzen ona denik, epaimahaikoa eta kazetari aldi berean izatea ez da komeni. Aurreko Bertso Txapelketa Nagusian komunikabideetan txapelketa aztertze-ko adituak zeuden, eta aurten falta izan dira. Hau da, adituak busti eta saioari buruzko balorazioa egin behar du.

IRAOLA.- Epaimahaiari egin zaizkion kritika gehienak onargarriak dira. Puntuazioen baremoak zabalitzen aha-legina egin dugu eta zabaldu dugu. Agian nahi adina ez dugu zabaldu. Komunikabideen aldetik egin didaten kritikarekin bat nator. Datu objetiboak eman beharra neuzkan. Ez da batere itxurosoa izan.

Gai-jartzaileen lana oso lan zaila, astuna da. Ez da jakiten gaiak zein fruitu emango duen. Txapelketan oso orek-ua izan da euren lana. Eta egin zaion klasikotasunari buruzko kritikari erantzunez, nik uste ez dagoela gauza modernoagorik, baserritar bat telefono in-lanbrikoarekin soroan ibiltzea baino. Nire ustez gaiak nahiko onak izan dira.

Bertsolarien alde ona: elkarri asko erantzuten ikusi ditut, puntuai ondo erantzuten. Kritika, berriz, doinu luzee-tara jotzeko joera handia dutela. Nire ustez ez da egokia. Ez baitute demos-tratzen puntu gehiago lortzen dutenik. 5 puntutik gorako bertsoekin kontuz ibili, ez nioke inori aholkatuko.

MUNDUATE.- Zuzenki Rufinori, ez zitzaidan ba-tere gustatu finalaren au-rretik DVn idatzi zenuen bertsolari bakoitzaren az-terketari buruzko artiku-lua. Bakoitzak txapelke-tan zein aukera zuen az-tertzen zen. Hori Bilbo eta Realaren arteko partidua-ren bezperan, arbitroak, Bilbok partidua irabazte-ko aukera gehiago duela esatea bezala da. Epai-mahaiko batek ezin du horretan erori.

Gaiei buruz, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago gus-tatzen direnak izaten dira, baina bertso txarrak ateratzen direnean bakarrik gogoratzen gara gai-jartzaileekin. Eta hori ez da juxtua. Gai-jartzaileek egin duten lana nik uste nahiko ona izan dela.

ZEBERIO.- Botatako loreengatik es-kerrak. Gai berri-berriak bilatzea oso zaila da. Nik bertsolariei egingo diedan kritika hori da: oso gutxi saiatzen direla antzeko gaietan enfoke edo bide berria egiten. Eta epaimahaiak hori oso gutxi baloratzen du. Bertsolariak ez dira arriskatzen epaimahaiak esfortzu hori ez duelako behar adina baloratzen.

MENDIZABAL.- Nik ez dut uste hori epaimahaiarengatik denik horrela. An-tzeko gairen bat jarri eta bide berriak bilatzeko, abildadea behar da.

MUNDUATE.- Zailena momentu ho-rretan freskura hori edukitzea da. Jaki-nez gero bertsoa eginda daukazula, bes-te baten bila hastea... Bi hilabete lehe-nago gai-jartzaileek ez baduzue ezer berririk atera, nola nahi duzue ba ber-tsolari batek minutu batean arrazoi be-rriak ateratzea?

MENDIZABAL.- Eskatzen duten in-tentoa eskertzekoa da. Irudimena lan-tzeari eman behar diogu garrantzia ber-tsolariok.

ZEBERIO.- Epaimahaiari beste kriti-ka bat: finalerarte nahiko lan txukuna egin du, baina finalean hankasartzeak egin zituztela uste dut. Bat-bateko ber-

tsoan akatsak daude eta akatsak zerbait suposatu behar du beti. Iruditzen zait, ez dituzuela betaurreko berdinekin ikusi, orain hasi berriak diren bertsolariak eta lehendik bertsotan ari direnak. Zaharrak zigortu egin dira.

IRAOLA.- Asko poztzen naiz kritika horrekin. Orain arteko kritikak izan dira, izena daukan bertsolariak plus bat daukela. Ahalegina egiten dugu, ez badugu asmatzen, ba.. Guk ez diogu izenari begiratzen. Guk bertsoa epaitu dugu.

ZEBERIO.- Eskolatik datozen bertsolariei erraz barkatzen zaizkie akatsak. Zaharrei lupaz begiratzen diezue.



Joxe Munduate bertsolaria eta Nikolas Zeberio gai-jartzailea.

Bestetik, harrigarria bezain grabea da epaimahaiko batek txapelduna izendatu eta esatea, kartzelara joan baino lehen txapela irabazita zeukala. Kontutan izan

6 epaimahaiko eta 4 bertso zeudela jokoan, teoriar 240 puntu zeuden jokoan, eta hori esatea grabea da.

IRAOLA.- Puntuazioak ikusi eta kartzelan zenbat puntu atera zituen ikusita, dedukzioz, ondoren inferitzen den zerbait da hori. Puntuak ikusita, txapela kartzelara joan aurretik irabazi zuela garbia zen. Inferitze hutsa da.

Era guztietako iritziak, beraz. Debatearen hasiera izan daiteke, eta proposamen eta kritika hauek guztiak, bertsolaritzaren onerako izan bitez.

MENDIZABAL.- Txapelketa eta urtean zehar egiten diren saioak ez dira berdinak. Hori garbi ikusten da, bai entzulegoaren erantzun aldetik, sortzen den giro aldetik, bai komunikabideek ematen duten tratamendu aldetik, bai bertsolari berak hartzen duen posturaren aldetik. Bertsolari bat txapelketan egiten duenaren arabera markatzen da.

Bertso-eskoletako partaidetza izan da nagusi aurtengo txapelketan. Mobida bat sortu da, elkartu egin dira sekula baino gehiago. Goierritarrok Zaldibin elkartu gara. Entrenatzeko moduak aldatu egin dira. Lehen saio maratoniak eta egurrezkoak egiten ziren; nork nor menderatu. Hori aldatu egin da Amurizaren garaitik hona. Lehenbizi lagun giro berezia lortu behar da; ariketa mekanikoak egiten dira (errima, neurria); baina azken aldi honetan garrantzirik handiena irudimena lantzeak dauka. Lanketa horrek balio du ofizioa arrazoiak botatzeko eta bakarkako gaietan ere arrazoi molde bereziak bota eta topikoetatik ihes egiteko.

Bertso-eskoletako bertsolariek abantaila dute: hasiera-hasieratik txapelketetan ari baitira.

MUNDUATE.- Txapelketa hau zerbait berezia izan da. Izen batzuk alde egin

dute eta izen horiekin batera entzule bartzuk. Bertsolari berriak etorri dira eta haiekin beste jende berri bat. Horrelako zerbait gertatzen denean, faboritoak zabaldu egiten dira. Jendearen artean ilusio ezberdina sortzen da. Hori dela eta, urte osoan prestakuntza on bat egiten saiatzen zara txapelketari begira. Baina askotan freskoena txapelketa urrutien dagoenean egoten zara.

Bertsolari guztiak ezin dira zaku berean sartu. Urtean 10 plaza egiten dituen bertsolari bat 100 egiten dituen bertsolariarekin tabladu gainean elkartzen denean, oso gaizki pasatzen du. Saioaren erdian poliki samar ari dela konturatzen denean, berotzen hasten da, baina ordu-rako saio erdia joanda dago.

Txapelketa honek zerbait berria izan behar du, ziklo baten hasiera.

ZEBERIO.- Bilerak egin eta gai pilaketa egiten da 3 bat hilabete lehenago. Txapelketa gerturatu ahala, gaiak sailkatu egiten ditugu, batez ere ofiziotakoak. Lehenengo finaleko gaiak jartzen ditugu, erreserba edo seguridadea edukitzeagatik. Finaletik hasi, finalaurreak... Puntuetako gaiak, oinak eta bukaerak, gehienak, bizpahiru egun lehenago jartzen ditugu, gaurkotasunezko gaiak izateagatik.

IRAOLA.- 1989an Zestoan egin zen "bertsolamintzan" hartu ziren erabakiak (bertso ona, txarra, erregularra... baremoak jarri genituen), gehiago landu nahi izan ditugu aurren. Batez ere erri-maren arloa landu edo erantsi dizkiogu.

Txostenak puntu hauek biltzen ditu: bertso ona zer den; gaiari dagozkion irizpideak, nola heltzen zaion, batak besteari nola erantzuten dion; hizkerari dagozkionak, oso zabalean hartzen dugu hizkera; aportazioak, irudimena, ateraldiak... arrazoiketari ematen diogu garrantzi handiena; figura literarioak ere asko baloratzen dira; neurria; erri-maren sailkapena, zein errima diren eredu eta idealak, hori bai, beti ere arrazoiaren inguruan; txostenaren bukaera esaten da, bertsoaren arima bukaerako arrazoiak da, aurretik beste puntuak ere elkarrekin lotuta behar dute. Txosten honen laburpena bidali zaitzaizen bertsolariei.

Epaimahaikoak bertsozaleak gara. Bertsozaleaz gain, bertsolaritza alde edo molde zorratu izan dugu. Norbaiten esan zuen bezala, bertsolari frustratua. Teorikoa eta praktika oreka hori lortzen saiatu eta dexente teorizatu dugunak.

LAZKAO

Euskarazko tailerrak gurasoentzat

AEK, Maizpide, Udala eta Euskal Eskola tailer berri bat antolatzeke elkartu dira oraingoan. Gabonetako ospakizunak amaitu ondoren euskara ez dakiten gurasoentzat deialdi berezi bat egin dute. Ikastaroa, urtarrilaren 9an hasiko da astearte eta ostegunetan, eta ordu t'erdiko klaseak izango dira. Hiru hilabete iraungo duen ikastaro honek 2.000 pezeta besterik ez du balio.

11 gurasok eman dute izena. M^a Joxe Madariagak adierazi digunez, honelako ekintzak aurrera pauso bat dira eta oso pozik daude jendearen erantzunarekin, gehiengoetan nahiko zaila baita gurasoak animatzea. Lan guzti honetan irakasleen papera ezinbestekoa da, gurasoak animatzeko eta honelako ekintzen garrantzia erakusteko. Umeen egoera ere hobetu egiten da, euskara erabiltzeko aukera handiagoa dutelako. Klaseetan, euskarazko oinarritzko maila bat erakustea litzateke ideia, gurasoak "agobiatu" gabe, gauza erraz eta egunerokoak ikasteko, modu jostagarri batean.

3 hilabeteak pasa ondoren, hala ere, ez da ekintza hor bertan utziko. Helburua, atsedeen baten ondoren ikastaro berri batekin hasia izango litzateke,



Iazko Astotxo eguna.



Moskorrak Mus Txapelketako finala.

euskarazko maila altuago batetara heltzeko ilusioarekin.

Astotxo eguna

Urtarrilaren 7an, Errege egunaren ondorengo igandean, Astotxo eguna ospatuko urtero bezala. 11 etako Meza

Nagusiaren ondoren, 13:00etan, Egiptoko ihesaren antzezpena izango da herrian zehar, Zawopi taldeak antolatuta. Palazio, monjen konbentu eta Zelaiaren inguruan antzeztuko dute.

Astotxo eguna 1652. urtean hasi zen ospatzen eta ordutik urtero egiten da. Ohitura hau, dirudienez, Lazkaon bakarrik ospatzen da. Gainera, mojen konbentuan ostiak saltzen dira egun horretan. Aurten 75.000 ostia eskatu dira.

Moskorrak musa

Abenduaren 17an ospatu zen 14. Moskorrak musa. Aurtengoan 128 bikotek hartu zuten bertan. Partidak Gerriko eta Hesparru elkarteetan eta Estanko tabernan jokatu ziren. Finalak Gerriko izan ziren, eta irabazle Caballero eta Pardo suertatu ziren. Aipagarria da, Caballero ordiziarra 4 aldiz izan dela irabazle, azken 3 urteetan jarraian irabazi du, beti bikote ezberdinarekin. Bigarren sailkatuak Zegamako Collado anaiak izan ziren. Lehenak 120.000 pzta. eraman zituzten, bigarrenak, berriz, erdia.

 Iraida Martin

URBITARTE sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfno. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

Urdaneta Haur Eskola inauguratuta

Inaxio Oliveri Hezkuntza-kontseilaria, Mari Karmen Marin probintzia-delegatua, Mari Karmen Yeboles Urdaneta ikastetxeko zuzendaria, Juanbi Erauskin alkatea eta Raul Lacalle kultura-batzordeko presidentea bertan zirela inauguratu zuten abenduaren 22an haur eskola berria. Lanak ikasturtea hasterako amaituta egon behar baziren ere, arazoak-arazo ez zen posible izan eta 4 hilabetez atzeratu ziren. Dena den, urtariletik aurrera 2 eta 5 urte bitarteko 162 haurrek instalakuntza hauek estreinatuko aukera izango dute.

Inauguraketa garaian, alkateak lehenengo eta Inaxio Oliverik ondoren hartu zuten hitza. Eraikinari berari baino, bertako haur hezkuntzak Euskal Herriaren etorkizunean suposatuko duenari garrantzia handiagoa eman zion. Aurrekoa ez zen falta izan Urdaneta dantza-eskolako dantzekin batera. Ondoren, argazkian ikus daitekeen moduan, zinta mozketari egin zitzaion tartea, eta azkenik denek eraikinaren barrena ikusteko aukera izan zuten.

Udalaren oharra

Aspaldian herrian ezarri diren gas instalazio desberdinak direla eta, Udalak jakitera eman du butano edo propano gas instalakuntzen kasuan derrigorrezkoa dela bost urtean behin errebisioa pasatzea. Aldi berean, gas naturalaren kasuan berau 4 urtez behin egin beharko da. Kasu guztietan zera gomendatzen du Udalak: 1.-Inolako aurretikako abisurik gabe etxera datozen enpresei muzin egin. 2.- Kontuan izan prezioak libreak direla. Beraz kontsul-



tatu zenbait eta aurrekontuak eskatu. 3.- Ikustaldia egin ondoren exigitu ziurtagiria eta 4.- Gogoratu goma malguak iraungi-data ipinita duela eta erregulatzaila izurratzen denean bakarrik aldatu behar dela.



Iñigo Felix etorkizuneko kirolari

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero bezela etorkizuneko kirolariei diplomak banatu zizkien joandako abenduaren 29an. Horien artean ordiziar bat ere izan genuen, Altamirako Iñigo Felix juniorra hain zuten. Iñigok urazpiko igerilari moduan urtean zehar egindako lanari esker eskuratu du sari hau.

Ikusi besterik ez dago Euskadiko eta Espainiako Txapelketetan lortutako

markak. Uztailean Arrasaten buruturiko Euskadiko Txapelketan lehen postuak lortu zituen 400 eta 100 metrotan, eskafandra eran (monoleta eta botilarekin). 50 m. apnea eran (monoleta eta birikez baliatuz), berriz, hirugarren postua. Uda guztian zehar asko entrenatu ondoren, irailean Almeriara joan zen Iñigo Espainiako Txapelketara eta lehen postua lortu zuen 400 m. eskafandran, bere denbora asko hobetuz.

Iñurrategi anaiak

Ordiziako Mendizaleak-ek 50 urte bete dituela eta ekitaldi ugari antolatu ditu urtean zehar. Amaiera bezala hilaren 28rako Iñurrategi anaien ikus-entzutekoa antolatu zuten. Herri Antzokian izan zen eta jende ugari bildu zela esan liteke (batez ere neska gazteak ikus zitezkeen). Felix Iñurrategik egin zuen aurkezpena, "Cho Oyu- Lothse" diaporama eskaini zuen.

Anti-Whiskas memoriala

Ordizian Whiskas laguntaldeari berehalako "etsaiak" sortu zaizkio. Zenbait alditan erakutsi duten jarrera harroputzari erantzun asmoz, beraien kontrako memoriala egitea bururatu zaie Babatxiki, Usunbilla eta Harriketarrak laguntaldee. Eguna jarri (abenduaren 23a), lekua (anexoa) eta, nola ez, otordua (Mendizaleak Elkartean). Atarramendu honen lehen irabazleak Babatxikikoak izan ziren. Whiskas-eko inor ez zen agertu anexoan.

 Aitor Calvillo

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai oihalak
Toailak - Gortinak eta Osagarriak

J. M. Barandiaran Plaza
(Gudarien Etorbidea)
Tel. 88 00 84
20240 ORDIZIA

OLAGI
sagardotegia

Sagardotegiko afariak
Eguneroko menuak
Ospakizunak
☎ 88 77 26



ALTZAGA



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

Ez gara zopajale bakarrak

Sobrare, Segurakoez gain, bazen zopajale gehiago. Nafarroan, Atarrabiatik iparralde-rantz, Lantzerako erdi bidean bidegurutzea hartuta, 3 kilometroa dagoen Etsain herrikoak ere, zopajale ezizenez dira ezagutuak. Anue bailaran kokatua, herri zopajale hau 700 metroa dago, eta asteburu edo uda partean gehixeago badira ere, 30en bat lagun bizi dira, gehienak zaharrak, nekazaritza, abeltzantza eta basogintzari emanak. Beste 6 herriekin batera Udaletxe konpartitua dute Olaguen. Nahiz eta Atarrabiako ikastolara joaten diren 4 umek badakiten, Etsainen, azken bi belaunalditan galdu dute bertako euskara.

Elorri Idazlan Sariketa

Urtero bezala, Elorri Kultur Elkartek, haur eta gazteen euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko, III. Elorri idazlan edo ipuin lehiaketa antolatu du, hiru sailetan banatuta:

A: BBB, IEE, LH, eta UBI mailakoen-tzat. 4 orrialde gutxienez eta 6 gehienez.

B: OHOk 7. eta 8.ekoentzat. 2 orrialde gutxienez eta 4 gehienez.

D: OHOk 5. eta 6.ekoentzat. Orrialde 1 gutxienez eta 2 gehienez.

Gaia norberak aukeratua, urtarrila-ren 22rako aurkeztu beharko da, Elorri Kultur Elkartera edo Elorripe taberna-ra. Epaimahaikoek, Joxean Ormazabal idazle zegamarrak, Iñaki Murua bertsolari gabiriarrak eta Josetxo Ugalde irakasle segurarrak, otsailean jakina-raziko dute bere erabakia, sariak bana-tzeko aurrez iragarriko den ekitaldian.

18-GOIERRITARRA



35en bat urte baditu argazki honek, bertan herritarrek Jermanene aurrean, ur-tarrilaren 5eko kabalgata hasteko pronto.



Etsaingo San Juan Bataiatzailearen eliza, estilo erromaniko berantiarrekoa, hi-lerria bertan duela. Herriaren zati bat honen inguruan dago, bestea berriz, beheko aldean.

Partehartzaile guztiek diploma jasoko dute, eta denentzat izango dira sariak. Informazio gehiago, antolatzaileek atera dituzten orri eta txarteletan.

Bestalde, iaz, II. Elorri lehiaketara aurkeztutako 33 idazlanak, sari bana-keta egunerako argitaratuko dira libu-ruska batean.

Loteriak eta errifak

Herriko hainbat tabernak, dendak eta elkartek ateratako gabonetako loteria-ren partizipazioetan, Eroslen pezetako duroa eta Antonkalenen jokaturakoa besterik ez da usaitu. Elorripe tabernak ateratako gabon xestoa, 044 zenbakia-ri, Etxezuriko Benitori tokatu zaio. Laiotz Herri Eskolako 8. OHOkoen

xestoaren zenbaki sari-tua, berriz, 386 izan da, eta Zerain aldera joan da.

Axintxio saritua

Pasa den abenduaren 27an, Ordizian, gabone-tako peri nagusian buru-tu zen "Gipuzkoako kontrolatutako ardi latxa eta aharien erakusketa-lehiaketa"-n, aharietan, eta mutur beltzekoen sai-lean, Axintxio Lardiza-balena izan zen iraba-zlea.

Larrialdiko deiak 088ra

Orain arte larrialdiko goardia zerbitzuak txan-daka egin izan dituzten Segura, Zegama, Idiaza-bal eta Mutiloako medi-kuek, eginbehar honi utzi egingo diote. 1996tik aurrera, eginkizun hau Gurutze Gorriari egoki-tuko zaio. Beraz, pre-miazko beharrik izanez gero, SOS-DEIAKera deitu behar da, 088 tele-fonora.

Dantza ikastaroak

Elorri K. E.-ak antolatuta "Muttikoak" dantza ikastaroaren jarraipena egingo da, urtarrilaren 13an, goizeko 11etatik aurrera, Baratzte Pilotalekuan, Iparraldeko "Primaderak" dantza taldeko partaideen eskutik.

Bestalde, urtarrilaren 4an iazko dantza sueltoko ikastaroari jarraipena egiteko bilera egin zen orduak, egunak, e.a. erabakitzeko. Dantza ikastaroa Euskal Dantzarien Biltzarreko Jesus Mari Garatek gidatuko du. Seguran ezaguna da Euskadiko Dantza Txapelketako epaimahaikidea baita. Iazkoan 68 lagunek parte hartu zuten.


 Joseba Telleria

Presoak Euskal Herriratzearen alde

Azaroaren 30eko Udalbatzan presoek zegozkien bi mozio aurkeztu ziren. Batetik, EAJk Pako Eskixabel herriko presoari buruzkoa; eta bestetik, HBk Senideak elkartearena. ETBko kamarak ere bertan izan ziren.

EAJren mozioak zera zioen: 1.-Herriko semea den Pako Eskixabalen gogoz kontrako urrutiratzea salatzen du. 2.-Dagokionari eskatzen dio bere herritik eta bere sendiarengandik gertuen duen espetxera berehala ekartzea. 3.-Eusko Legebiltzarreko giza Eskubideen batzordeari eskaera luzatzen dio Madrileko Gobernuaren aurrean gestioak egin ditzan Pako Eskixabel ahal bezain laster gerturatzeko. 4.-Salaketa hau Madrileko Gobernuko Presidente eta Barne Ministroari, Gartzelatako zuzendariari eta Eusko Legebiltzarrari luzatzea eskatzen da.

HBko Jose Luis Urretabizkaiak hartu zuen jarraian hitza. EAJk aurkeztutako mozioa, Pako eta bere familiarentzat burla bat dela esan zuen. Guzti honen zinismo eta hipokresia gainditzea suposatzen duela gaineratu zuen; ez zuen ulertzen momentu honetako ekintza honen zergatia, ez eta berarekin zer lortu nahi den ere. Ekintza honen aurrean galdera hauek luzatu zizkion bere buruari: non egon da EAJ orain arte? Zergatik ezeztatu ditu HBk historian zehar arazo honen inguruan aurkeztu dituen ekimen guztiak?



EAJren jokuan sartzeko prest ez da goela jakinarazi zuen HBk. Joku horrek bere ustez, bere buruarekiko propaganda eta publizitatea egitea besterik ez baitu lortzen.

Jarraian, HBk, Senideak, euskal preso, errefuxiatu eta deportatu politikoen familiaren elkartearen mozioa aurkeztu zuen. Mozioak zera eskatzen zuen: Udalak berea egin dezan preso eta beren familiarrek egindako eskaera; hau da, euskal preso politikoak euskal herrira ekartzea. Eta baldintzak betetzen dituzten preso guztien baldintzapeko askatasunaren aplikazioa, berehala eta txantaiarik gabe. Konkretuki: 1.-Kar-

tzela zigorraren 3/4ak bete dituztenei; 2.-Gaixotasun larriak sufritzen dituzten guztiei.

Erantzunik ez zen izan beste alderdi politikoen aldetik. Eta botazioaren emaitza hauxe izan zen: EAJk aurkeztutako mozioak 5 aldeko boto (4 EAJ eta 1 EA) eta 2 aurkako (HB). HBk aurkeztutako mozioak, 7 aldeko botoak (bertaratutakoaren ahobatasuna). Beraz, bi mozioak onartu ziren botazioaren emaitzak ikusita.

 Josune Amondarain

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA



Tfona: 885500 ORDIZIA



- Iragazkaiztekoak
- Montairu eta ormigoientzako gehigarriak
- Ormigoiaeren tratamenduak
- Dilatazio juntak
- Erretxinak

Senpere Merkatal Zentrua
1. solairua (3. zkia.) BEASAIN
☎ 889350 Faxa: 880688

Zaharretik berrira

Lege zaharrean hasi dugu urte berria. Ametsak eta ezinak. Pozak eta kezkak. Ikatza eta opariak. Denak zaku berean, erdi-beteta batzuentzat, erdi-hustuta beste batzuentzat. Kantuan agurtu zuten Urte Zaharra herriko hiru taldek. Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Joxemiel Barandiaran Herri Eskolako 8. mailakoak eta Eskola bereraren izenean aritu zen taldea, ibili ziren herrian zehar 'Berri onakin gera' kopla zaharrak kantatzen. Herriarren erantzuna ikusita, usadio zaharra ez da puska batean galduko.

Urte berriak, berriz, esna harrapatu gintuen gehienok. Eta horrela hobe. Batzuk etxe-giroan, beste batzuk parrandan, mendi-bidean edo beste zerbaitetan.

Beste harek esan zigun bezala: "hau ere izan duk berriena". Urte berri on.

'Eate' abesbatzak aurkezpena

Ilbeltzak 6, larunbata, Errege egunez egingo du aurkezpen ofiziala 'Eate' Abesbatzak. Arratsaldeko 7etan izan da kantaldia, San Martingo Elizan.

13 neska eta 14 mutil arituko dira kantuan Maximo Aierberen esanetara. Urtebete inguru prestatzen aritu ondoren, maila ona emateko asmoa dute jendaurreko lehen saio ofizialean. 5 kantu herrikoï eta beste 5 Gabon-girokoak, eskeiniko dituzte.

Abesbatzari, berriz, 'Eate' izen zaharra jarri diote. Gaur egun ia galduta dagoen hitza, oso gutxi erabiltzen dutena. Euskal Herriko mitologian, ekaitz, sute, uholde eta haizeteen jainua da. 'Eate-hotsa', berriz, ekaitz edo erauntsi aurretik entzuten den soinuua da. Oraindik erabiltzen dute bakar batzuk.

Izen egokia beraz, izen zaharra gal ez dadin eta berriro erabiltzeko. 'Eate-hotsa' entzuten da eta larunbatean joko du trumoi San Martingo Elizan.

20-GOIERRITARRA



Kantuan "Batzarrika"n.



Jentilbaratzan Urteberria.

'Eguzki Berri'k 43.a

Kalean dugu Eskolako 'Eguzki Berri' aldizkaria. Eskolan egiten den sormen lana ikaragarria dela erakutsi digu berriro. Batzu-batzuk ez datoz hanka motzak. 5. urtea du 'Eguzki Berri'k eta 43. zenbakia kaleratu dute.

Eta aldizkariak aipatuz, 20 urte betetzen dira hil honetan Oargik 'Nondik' aldizkaria sortu zuela. Franco hil berria, 1976ko urtarrilean kaleratu zen lehenbizikoa. Azkenekoa, juxtu orain 4 urte, 1992ko urtarrilean. Lastima!

Zinegotzi postu bat hutsik

Abenduaren 27ko Plenoan utzi zuen zinegotzi kargua Joxe Benito Apalategik. Kultura, Turismo eta Kirol batzordearen ardura zuen eta arrazoi pertsonalak tarteko utzi du kargua. Orain, gehienez bi aste barruz, Santi Etxeberriak hartuko du zinegotzi postu hori.

Santi Etxeberria 7. aurkeztu zen 'Herrigintza'ren zerrendan eta bere aurretik zeuden Juani Aramendi eta Patxi Arratibelek errenuntzia aurkeztu dute.

1.600 exkax

Martxoan egingo da herri-tarron errolda edo padroi berria. Orduan jakingo dugu zenbat garen, baina ez gara 1.600dik urruti ibiliko. Iaz 6 haur jaio ziren eta heriotzak, berriz, 16 izan ziren. Biztanle kopurua behera doa urtetik urtera. 1994ko urtarrilean 1.654 ginen. 95ekoan 1.635.

Heriotzak

Maria Dolores Urkola Montoya. Barraingoa. 88 urte zituen. Bilbon hil zen abenduaren 21ean.

Ramon Imaz Urrestarazu. Ergoneko Urbitarte etxekoa. 85 urte zituela hil zen abenduaren 29an.

Antonia Esnaola. Elbarrenako Etxe-Alaikoa. 81 urte zituen. Urtarrilaren 2an hil zen.

Utzi berri gaitu baita, urte askoz Astigarrako Andietxen bizi izan zen Maximo Bilbaok.

Atsekabeen lagun senide eta familiakoak.

Motz-motz

● 23 urte herritik kanpora izan ondoren, berriz ere gure artean da, Joxeangel Imaz Aizpurua. Ondo etorria eta ondo izan.

● Ari dira organoaren aurpegia garbitzen. Brilu batean jarriko dute lehengo itxurarik gabe. Barruko tresneria, berriz, orain Katalunyan dago.

● Zorionak Santi Iruretagoienari. Las-kain etxean bizi den margolariak Aterpe Pintura Lehiaketa irabazi du Beasainen. Ikus 3. orria.

Jon Aizpurua

Gazteak kantari Eguberri bezperan

Ohiturari jarraituz, herriko gazteak abestera ateraz ziren Eguberri bezperan. 40 lagun inguru bildu ziren eta 180.000 pezeta baino gehiago lortu zituzten. Diru hori Joxe Elorza 'Joxpi' idiaza-baldarrari eman diote, honek Aralarren mendian istripua izan zuen.

Diru hori lortzeko goizeko 8.30etan hasi ziren abesten traktore baten laguntzarekin. Goizean Iurre auzoan, alde zaharrean eta Oiarbide baserri inguruan abestu zuten. Zeba tabernan hamaiketako egin ondoren, Etxe-Zuri sagardotegian bazkaldu zuten. Arratsaldean, Errekalde auzoan abestuz amaitu zuten kantaldia. Bestalde, kantari ateraz zen gazte taldea, baserri eta etxe guztietara joan ez izateaz arranguratzeko da.

Haurrentzat eskulanak

Abenduko azkenengo astean hurrek jolas ezberdinak egiteko aukera izan zuten. Asteartetik ostirala bitartean arratsaldeko 2 ordutan izan ziren eta lekua, berriz, lehengo eskoletan. Lehenengo orduan Olentzero bat egin zuten eta bigarrenengoan jolas ezberdinak. Lau egun hauetan 6-11 urte bitarteko 18 haur egon ziren.

Herriko mapa

Udalak eginiko azken Plenoan (urrian) mapa topografiko-toponimikoa egitea erabaki zen. Lan hau Etnogintza CB



enpresak egingo du eta enpresa hone-tako lan-taldea gerturatuko da informazioa jasotzera. Ondorioz Udalak, herritarren laguntza eskatzen du.

'Zeba?' aldizkaria

'Zeba?' aldizkariaren 2. alea kalean dago jadanik. Lehenengo alea San Joan festetarako ateraz zen eta azkenengo hau Gabonetarako. Aldizkaria 7 herritarren artean egin dago eta baita hainbat jenderen laguntzarekin. Finantziaketa, berriz, Udalarengandik dator oso osorik. Azken ale honetan besteak beste gai hauek landu dira: Ordiziako Euskal Jailetan 3 sari irabazi zituen Alberto Irastorza baserritarrari elkarrizketa; arku tiro kirolean dabilzanek elkarrizke-

ta; sagardo denboraldia orain hasten denez, sagardoari buruzko erreportaia; Jose Antonio Martinez misiolariari elkarrizketa; eta abar luze bat.

Aldizkariaren helburua bikoitza da: batetik, herria sakabanatuta dagoenez herritarrak elkartzea, bestetik, herriko gauza interesgarri eta historikoak azaleratzea. Aldizkaria euskaraz eta gaztelaraz dago idatzia, herritar erdalduen kopurua handia delako. Herriko edozeinek har dezake parte aldizkarian. Interesetako balitzaizueke Ana Mari Telleriarekin jarri zaitezke kontaktuan, larunbatero, ludotekan, arratsaldeko 4etatik aurrera.

 Nagore Goiburu

Inprimategia
EGUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfnoa: 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
Tfnoa: 88 80 29
BEASAIN

ALUMINIOS
AE
EUSKADI, S. A.

Zubi termikoaren haustura
Aroztegiatarako profilak
Bainu manparak
Aluminiozko xafra normalizatuak
Makinaria

Biltegia: ☎ 16 11 66
Bulegoak: ☎ 88 93 50
Faxa: 16 02 91

10 Poligonoa
34-36 Pab.
BEASAIN

Herri Eskolakoak Madriden

Herri Eskolako 8. mailako ikasleei 'Eskola bidaiariak' saria egokitu eta 6 eguneko bidaia egin dute Madrideko Komunitatera. "Gure tutorea etorri zen arratsalde batez bidaia honen zozketarako albistea emanez, bi aldiz pentsatu gabe, guk baietz esan genuen. Esperantzarik ia bat ere ez genuen", aitortu dute ikasleek. Esperantza azkena galdu behar dena dela esaten da, eta zegamarren kasuan horixe gertatu zen. Irabazi eta Madriden ibili dira. Merezi izan duela diote. "Alde batetik, museo eta monumentu asko ikusten eta ikasten dituzulako beste aldetik lagun asko egiten dituzulako".

Errege Jauregia, Planetarioa, jolas-parkea, Diputatuen Kongresua, Eskoriala, Prado Museoa, Zoologikoa, Hiriko museoa, Austrien kalea, Manzanareseko Parke Erregionala, Santiago Bernabeu, La 'Vaguada' merkatal zentrua, El Retiro Parkea, Metroa, Cibeles, Puerta de Alcalá... ikusteko aukera izan dute besteak beste. Lan gogorra ez, baina "pittin bat aspergarria izan da" gaztetxoan esanetan. Gehiena jolas-parkea gustatu omen zaie. Gehien harritu zituen, berriz, Eskorialeko Pan-teoi Errealeko hilobiak.



8. mailako ikasleak Madrideko zoologikoan.



Murgi-Zelaiko parkea bukatzeaz dago.

Zaragoza eta Almeriako beste gaztetxoekin egin dute bidaia. Guztira 44 ikasle eta 4 irakasle izan ziren. Oso ondo konpondu omen dira elkarrekin. Berriro joateko prest azaldu dira, "baina Almeria eta Zaragozakoekin, oso lagun onake egin baikin. Gainera,

logelan egiten genituen juergak eta azken eguneko festa oso onak izan ziren", azpimarratu dute zegamarrek. Hori bai, "Madrid oso polita da eta gauza interesgarriak ditu, baina nahiago dugu gure Zegaman bizi".

Murgi-Zelaiko parkea

Udalak Eusko Jaurlaritzari egin zion dirulaguntza eskaerari esker, Murgi-Zelaiko zaborteia berziklatu eta parkea egitea lortu da. Bertan, jolas-parkea, mahai eta bankuak, iturria eta hainbat arbola mota ezberdin aldatu dira guztion atsegingarri.

Hau guztia aurkeztutako proiekturik egokiena izateagatik lortu da eta aurtengo urtean bukatzeagatik dohainik izango da gure herriarentzat. Obra guztira 28 milioi pezeta kostatu da eta guztia Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak ordaindu du.

Odol analisisa

Datorren urtarrilaren 16tik aurrera, Osasun Zentruan analisiarako odola ateratzeko moduan izango gara. Astean bi egunetan izango dugu aukera odola ateratzeko, astearte eta ostiralean, goizeko 9.00etatik 9.30etara.

Edurne Albizu

IBAI - ONDO




**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

**Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN**



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

Ez ohizko eskaleak, Errege bezperakoak berreskuratu nahian

Errondan ibiltzea ohitura handi eta ederra izan da nekazal gizarteetan. Goierri ere ez da, noski, apartean ibili, eta Santa Ageda, San Nikolas eta Gabon egunak kantuz ospatu ohi dira aspaldi gurean. Guzti hauei baina, Errege bezpera gehitu zaie orain. Guk, beraiekin egin genuen buelta.

Erdi lotan batzuk, eguraldiaren ustelaz mekaueenka besteak... tradizioak agintzen duen eran jantziak, hori bai, guztiak.

Paperak etxean utzita etorri da Asier, eta Xabierrek nahikoa lan badu txapela zuzentzen. Larraitx, berriz, bazter xamarrean dabil, soinua hotzetik babestuko duen zerbaiten bila ari da nonbait.

Beasain mendira bidean doinu eta letren azken errepasoa.

Erronda hastera doa

Uxatu dituzte ezatarriko azken lakarrak. Arrate azken orduan bildu zaio taldeari, eta bakarlari lanak egingo ditu aurtun. Buruan darabilen doinua ere berria dute. Baserrietako errondarako egokia delakoan moldatu zuten. Tes-tuei baina, moldaketa gutxi egin dizkiete aurtengorako.

Sarobetxeko ate tzarra zabaldu da halako batean.

"Errege bezperan gaude ta artu nai genuke parte. Oitura zarrak berpiztu naian gabiltza limosna eske."

Agurrari, laudorioak, eskea eta esker



onekoak jarraituko zaizkio; 8, 8, 10, 8 egiturapean denak.

Manuelek gustora entzun ditu antza, eta limosna ere poliki eman du. Etxeberri, Aiesta eta Arrustiko etxeko andreak ere ondo portatu dira.

Kultur ondare eta tradizioa

Beherakoa, soinu eta panderoak bizkarrean, dexenteko abiadan egin dugu. Idoia eta Haizearen abarkak solte dira dagoeneko. Kantuen etena hizketarako aprobetxatuko dugu:

"Kopla zarrek -dio-, eskelarienak bezela re ezaunek, osatzen due euskal aozko literaturaen aldetik aberetsenetakoa. Noizkok dien ez dakigun arren, badakigu Erdi Aron e kantatzen zituztela. Izenak esaten don bezela, erronda dute elburu. Santu eta holakon bizitzak aitzakitatzat hartuz, etxez etxe ibiltzen

zien garai baten herriko gaztek, limosna o afaritako zerbait eskatuz".

Literatura kontutan jantzita ikusten da Igor. Berak eman dizkigu azalpenak; gainontzekoen moduan, 16 urte besterik ez ditu. Ainhoa berak esandakoak berrestera mugatu da.

Zaharrenean, emozioa

Udaletxera jeitsi aurretik, eta iazkoan ez bezala, Zaharren egoitzan egin dute alto. Garbiñeren amonaren eskaria izan omen da, eta ez diote hutsik egin nahi izan. Egia esan, ondo hartu dituzte, eta malkoei eusterik izan ez dionik ere izan da.

Aurtengoz bukatu da

Azkena, eta hemezortzigarrena da, ikastetxean bertan kantatu dute. Josebak nekez eusten dio dagoeneko trikitiari; denak ere nahikoa nekatuta dauzka kalez kaleko bueltak. Bukatu da, beraz. Bildutakoen errekuentoa dute orain zeregin. Milakoak dexente ikusten dira; ONCEko kupoi bat ere bada artean. Afarirako adina diru lortu dute eta pozik dira. Guk hortan utzi ditugu. Ezin, ordea, agurrik gabe joan. Eta zerbait ikasi dugulakoan, hitz neurtuz bota diegu.

"Erreportaia eskuan, orain abia gaitean. Adiosikan ez degu eta, agur ikusi artean".

 Joseba Mikel Leunda

KITTO
taberna


Goizetan 8etatik aurrera zabalik
Joan Iturralde, 1 ☎ 16 19 39
BEASAIN



Nagusia, 11

☎ 88 82 37

BEASAIN



Zorionak eta urte berri on!

Bi lerrotan

OSAN SILBESTRE

KROSSAK ospatu ziren Urte Zahar egunez, Beasain, Ordizia eta Legorretan.



Beasaingo San Silbestreko sari-banaketa.

Beasaingoa da nagusia eta bertan Andres Antonio Rodriguez izan zen garaile, 2. Antonio Merino eta 3. Kamel Ziani. 121 partaide izan ziren eta lehen beasaingarra Martin Irizar izan zen, 2., berriz, Luis M. Garijo. Emakumeetan Natalia Azpiaz, Angelines Rodriguez eta Isabel Eizmendi izan zen lehen 2en ordena.

Ordizian 170 korrikalarien artean, herritarak izan ziren nagusi. Jose Javier Cuadrado izan zen irabazle, 2. Jose Antonio Blanco eta 3. Rafa Blanco. Emakumeen kategorian Lidia Frias izan zen garaile, ondoren Maite Rajado eta 3. Ana Miren Miralles.

Legorretako San Silbestrea ez da hain ezaguna, baina, legorretarrek ere urtea korrika bukatzeko aukera izan zuten. Gizonezkoetan hau izan zen sailkapena: 1. Fernando Oliveira, 2.



Loinaz Txirrindulari Elkarteko kadeteak: Beñat Garaialde, Jon Joseba Lasa, Anartz Mujika, Koldo Camacho, Xabier Elorza, Deba, Jakoba Korta eta Unai Paredes.

Luis Oliveira eta 3. Iker Oiarbide. Emakumezkoetan berriz: 1. Edurne Arakistain, 2. Mari Karmen Altuna eta 3. Marilu Salazar.

MIKEL SAEZ DE URABAIN ordiziar mendizalea Patagonia aldean da, beste bi mendizaleekin batera. Fitz Roy (3.441 m.) mendia igotzeko Casarotto pilarea eskalatu beharko dute. Pilareak 1.500 metro ditu. Zailtasunari dagokionez, V+/A2 bezala graduatua da.

JOSUNE BEREZIARTU Munduko Eskalada txapelketan izan da. Beasaingarra 24. postuan gelditu zen.

IMAZ PRIMERAN. Xabier Imaz pelotari segurarrak bere lehen partidua jokatu zuen lehenengo mailako txapelketan. Galarza ordezkatu zuen Retegi haundiaren ondoan, Una-

nue-Elkorori 22-20 irabaziz. Emaizta eta joku onarekin egin zuen debuta.

BEASAINGO LOINAZ Txirrindulari Elkartek azken urteetako beheko kategorietako txirrindularien balantzea egin du. 10 eta 16 urte arteko gazteekin egiten dute lana. Adin horretatik aurrera Ordiziako Opel taldera joaten dira eta ondoren Loinazen Iberdrola afizionatu taldera itzultzeko aukera izaten dute. Azken denboraldietan beheko kategorietako gaztetxoekin hainbat lan egin dute: oinarritzko prestakuntza fisikoa, kirol bideoak, hitzaldiak, asteroko irteerak... Kirol mailan berriz ondorengo emaitzak lortu dituzte: Gipuzkoa eta Euskadiko 8 txapelketa Beñat Garaialdek; taldekako erlojuaren aurkakoa Gipuzkoako 5 txapelketa, 80 lasterketa inguru. Aurrera ere lanean jarraitzeko gogoz daude eta beraien lorpenen berri ematen jarraituko dugu.



ASTUN - CANDANCHU

- Aste bukaera -
9.900 pezeta

Autobusa, 2 eguneko forfaita eta 2 gau apartamentuan.

- Egun bateko forfaita -
2.800 pezeta

Kale Nagusia, 36

ANDORRA (PAL)

- Igandetik ostiralera -
32.000 pezeta

Autobusa, 5 eguneko forfaita, *** hotela, pentsio osoa eta aseguru.

16 15 46 - 47

BEASAIN

Antzerkiaren garaia iritsi da Goierriara



Miren Larrañaga, Juan Felipe Barandiaran, Raul Lacalle, Arantxa Aseginolaza, Miren Kortaberria eta Iñaki Hidalgo, 3 udaletako kultur teknikari eta zinegotziak.

B easain, Ordizia eta Lazkaoko udalek 'Antzerki garaia 96' kanpaina martxan jarriko dute urtarrilaren 12an. Apirilaren 26ra bitartean, 10 antzezlan ikusteko aukera izango da; Beasainen eta Ordizian launa eta Lazkaon 2. Antzerkizaleok, ostiraletan, 22:15ean duzue zita.

Iaz Ordizia eta Beasaingo udalen ekimenaren arrakasta ikusirik, aurten ere 'Antzerki garaia' bizitzeko aukera izango dugu. Aurten, Lazkao ere gehitu zaio kanpaina honi. Arantxa Aseginolaza Beasaingo Kultur zinegotziak adierazi zuenez, "pau-so handia da Goierriko 3 herri horrelako ekimen batean bateratzea".

Antzerki eskaintza ezagatik galdu den ikuslea berres-

kuratzea eta gazteenen artean publiko berria sortzea da kanpaina honen helburua. Horretarako aukera zabala eskaintzen da. Iaz baino 4 antzezlan gehiago izango dira. Talde guztiak Euskal Herrikoak dira eta 10 antzezlanetatik 4 eskainiko dira euskaraz. "Taldeak aukeratzeko erabili dugun irizpidea kalitatearen izan da", antolatzaileen esanetan.

Gauzak honela, Goierri aldean interpretatuko dituzten lanak berriak dira, duela gutxi estreinatuak. "Gaurkotetasun handikoak izatea nahi izan da", adierazi dute. Ordizian, gainera, estreinua izango da, otsailaren 23an. Tanttaka taldeak 'El pensil florido' lana taularatuko du lehen aldiz.

Prezio bereziak

600 pezeta kostako da funtzio bakoitza. Baina denboraldi osorako abonauak ere badira 4.000 pezetan. Hauek, Ordiziako Herri Antzokiko leihatilan eta Barrena Jauregian; Lazkaoko Aleria Antzokiko leihatilan eta Udaleko Kultur Sailean; eta Beasaingo Usurbe Antzokiko leihatilan eta Udaleko Kultur Sailean eros daitezke. Abonatuak, herri hauetan etorkizunean izango den antzerki programazioari buruzko informazio zehatza jasoko dute. Hori bai, abonauak aldez aurretik egitea eskatu dute antolatzaileek.

Aurten bada nobedade bat: 10 sarrera baino gehiago eskuratu nahi duten kultur talde, ikastetxe, eta abarrek, sarrera salneurri berezia izango dute: 400 pezeta sarrerako. Taldeko sarreraren eskaerak lortzeko dagokion Udaletxeko Kultur Sailean aldez aurretik jakinarazi beharko da.

Euskadiko Antzoki Sarea eta Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz eta babesean burutuko da kanpaina. Guztira, 5 bat milioi pezetako aurrekontua du.

L.A.

HILAK - 12 OSTIRALA	22:15 USURBE ANTZOKIAN - UR - "Romeo y Julieta"	URTARRILA
HILAK - 19 OSTIRALA	22:15 ARERIA ANTZOKIAN - TANTTAKA - "Umekeriak"	
HILAK - 26 OSTIRALA	22:15 HERRI ANTZOKIAN - ORAIN - "Besarka gaitzen Folleville"	
HILAK - 9 OSTIRALA	22:15 USURBE ANTZOKIAN - AKUSA - "FRAN V"	OTSAILA
HILAK - 16 OSTIRALA	22:15 ARERIA ANTZOKIAN - IN FRAGRANTI - "Oleana"	
HILAK - 23 OSTIRALA	22:15 HERRI ANTZOKIAN - TANTTAKA - "El pensil florido"	
HILAK - 8 OSTIRALA	22:15 USURBE ANTZOKIAN - IN FRAGRANTI - "Hamaika Trikimailu"	MARTXOA
HILAK - 22 OSTIRALA	22:15 HERRI ANTZOKIAN - SOBRADUN - "Herminio y Miguelito"	
HILAK - 12 OSTIRALA	22:15 USURBE ANTZOKIAN - FOLO - "Flash Bang"	
HILAK - 26 OSTIRALA	22:15 HERRI ANTZOKIAN - Gorakada-Paparote - "Buenas Noches"	APRILA
EUSKARAZ	CASTELLANO	



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
-Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste.

MANDUBIKO BENTA Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik
Goierriarako bidean
Tfona: 88 26 73

Lourdes Zurutuza ataundarra piperren munduan

Orain 37 urte jaioa Ataun-San Gregorioko Arratiñea baserrian. Lan bila irten zitzaigun Lourdes Zurutuza Aierbe orain 8 urte piperren mundura, Nafarroako beste puntan dagoen Lodosara. "18 urte beterarte baserrian, gero umezaintzan eta azkenik taberna munduan sartu nintzen. Donostian, Ataungo "Victor" jatetxean eta Salbatoreko "Etxeberria"n aritu nintzen lanean. Langabe zegoen adiskide batek, Jose Urdangarinek (orain 4 urte hila), ea taberna bat jartzen lagunduko nion eskatu eta hala hasi ginen", Lourdesek adierazi digunez. Bila ibili ondoren eskuragarri zuten taberna Lodosan topatu zuten, "Gurea" taberna hain zuzen, Donostialdekoekin konparatuz merkeagoa baitzen.

Krisia dela eta, beharbada beste alde batzuetan baino gehiago ari da jeisten Lodosan tabernako mugimendua. Sorotik bizi da jendea eta beldur handia diote eguraldiari. Eta bezeroak, denetarik, gehienbat langile jendea (sorokoa, nekazaritzatik bizi dena), turismokoa eta pasokoa (Goierri eta Tolosaldeetik doazen ehiztariak batez ere).

5.000 biztanle pasatxo dituen herri honetako jendearen ohiturak desberdin xamarak dira Goierri aldekoekin konparatuz. Ataundarraren arabera, "jendea egunean bizi da. Goierri hilean behin kobratzen bada soldata, hemen astero edo 15ean behin. Irabazi ahala gastatzen da tabernetan. Berdin zaie gaur 10.000 pezeta hartu eskuetan, makinetan gastatu eta ezer gabe etxera joatea. Bestalde hemen inbidia asko dago, normala izaten da bata-besteaz gaizkiesaka aritzea".

Gezurra dirudien arren, asko galdu da tabernetan Jotak kantatzeko ohitura hori, "festetan bakarrik entzuten dira eta orduan ere, Nafarroako beste herrietan bezela, zezenak dira nagusi".



Nekazaritzatik bizi da Lodosa

Gainontzeko lekuetan bezala lan gutxiago dago orain Lodosan, etorkizunari begira beldurra da nagusi eta are gehiago europar elkartean sartu ginetik. Asko ijitoak dira eta hauek ez daukate lanpostu finkorik. Negu eta udaberrian ez da batere lanik egiten eta bertakoak larri ibiltzen dira. Esparra-goak hasi eta piperrak bukatu bitartean egiten da gehienbat lana (udan).

Pikilloa estimagarriena

Eta Lodosan bizita, ezin piperrei buruz galdetu gabe geratu. Garai batean txorizeroa edo piper-sekoa zen nagusi, balkoietatik zintzilikatzen zena. Baina diru gehiago ematen du pikillo dela-koak (oso fuertea eta txikiagoa). Mendabia eta Lodosa artean konpetentzia handia omen dago eta denominazioa jarri zutenetik are gehiago. Mendabian handixeagoa, lodixeagoa, itxura ederragokoa da eta Lodosakoa, aldiz, txikiagoa eta finagoa, beste gusto bat dauka. "Ohitura dutenek, segituan nabaritzen dute ez dela berdina Mendabia, Lodosa, Sartaguda, Carcar edo Andosillakoa izan, nahiz eta ondoan egon", ataundarraren arabera. Baina Lodosa ez da piperra bakarrik, esparra-

goa, pella, tomatea, aza eta abar ere landatzen dira.

Euskararen egoera kaxkarra

Lodosa Lizarratik 30en bat km.ra dago, ia Errioxarekin mugan. Hor egonik euskararen egoera ez da oso atsegina. "Egia esan triste xamarra da, hemen jende gogorra dago, euskera ez dute behartu nahi, ez dute onartzen. Orduan euskararen aurka edozer gauza egiten da. Dena den, orain Ikastola daukagu. Etxe bat da, 3 gelakin, 5 urterarteko umeentzat. Datorren urterako beste etxe bat topatu beharrean gaude, baina arazoak daude ez baitago Ikastola berria non eginik eta hor gabiltza Udalarekin tira-

biran. Udalak dio Ikastola txarra dela, ez dela komeni egitea, badagoela bestela non irakatsia umeei. Hor gabiltza 20-30 familia Ikastola aurrera atera nahirik".

Datorren urterako ba omen dauzkate beste asmo batzuk, Nafarroa Oinez bat antolatzeke nahiarekin baitabilta. Lourdes Zurutuza ere hortan sartuta dabil: "momentuz badakigu datorren 2-3 urtetan ezingo dela, Etxarrin eta Tafallan ospatuko baita, baina gure eskaera hor joango da eta ea lortzen dugun hemendik 3-4 urtera Nafarroa Oinez ekarri eta Ikastola aurrera ateratzeko bidea topatzen dugun". Lodosan ez dago euskal familiarik, batez ere gurasoen aldetikako ilusio bat da, beraiek ez jakin arren semeek euskera jakin dezatenaren ilusioa.

Lourdes orain, Jose hil zenetik, bakarrik dago "Gurea" tabernan. Traspasoan dauka taberna eta etorkizuna beltz ikusten du. Hain bakarrik ere ez dago, 2 urteko Jon semeak egunak alaitzen baitizkio. Ea zorterik duen eta aurrera ateratzeko modurik topatzen duen.

 Aitor Calvillo Zurutuza



1968ko 'Aurrera' taldea

'Aurrera' laguntaldearen argazkia bidali digu Patxi Calvilok. 1968an, garai bateko 'Kanpo Arana'n, herriko kuadrilen arteko txapelketaren barruan jokatu zuten partiduen aurretik ateratakoa da argazkia, hain zuzen ere. Hona hemen hamaiakoa:

Zutik: Inazio Otegi, Patxi Mujika zena, Jabier Barandiaran, Jose Mari Balerdi zena, Antton Sasiain eta Jose Mari Galparsoro.

Makurtuta: Patxi Calvillo, Juanra Etxezarreta, Justo Ezeiza, Jesus Perez de Viñaspre eta Goio Barandiaran.



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6

☎ 88 59 28 - 16 17 44 ORDIZIA


**JAUREGI
TOLDOAK s/l**

Tfonoak: 880243 - 880133

BEASAIN



K O I O T E



Giro atsegina musika onenarekin

ORDIZIA

BEASAIN

Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak
gogor diharduela euskal gizarte
eta enpresagintzaren alde. Oso
Kutxa geure-geurea dela. Euskal
Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen
al duzu gure profesionaltasun
-eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura
gehiago. Familientzat, interes han-
diagoak kontu korrontean eta ohiz-
ko libretan. Beste kutxetan baino
gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da, profesio-
naltasun garbiko bidean.




ORBELAN

PLASTIKOAK

Kalitatezko sagardo kaja egilea

Ama Kandida Etorbidea, 13 ANDOAIN Tel. 59 11 51 - 59 15 90 Faxe 59 16 99



*i*txura baino
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxe: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA